



ttipi-ttapa

TOKIKOM



Xabi ARANGUREN
La Indurain probaren irabazlea
→ 53

2011ko uztailaren 7a | XXXI. urtea | 546. zenbakia

www.ttipi.net

Herriko bestak

Arano, Elgorriaga, Ituren eta Elizondo

ARKUPEAK → 35

Pedro Bañaresek hartu du Felipe Ganboaren kargua

ARESO → 39

Guraso Elkartearen 25. urteurrena

SARA → 49

Eskulangintza eta Gastronomía Feria


HERRI KIROLAK → 53

Sanferminetako txapelketak 8tik 14ra

Martxel ARRIBILLAGA | Espainiako Freestyle txapeldun beratarra

Saltoak eta akrobaziak bizikletarekin

Freestyle «bizikletarekin saltoak egin eta airean zauden bitartean akrobaziak egitea» da. Halaxe laburbiltzen du kirol honen funtsa Martxelek. Aurten bigarren urtea du profesional bezala eta iaz Espainiako txapeldun izan zen. → 51



ARGAZKIA: JULEN PLANO



Xutik! taldea

ELKARRIZKETA → 3

Maiatzean atera dute euren lehen lana Baga-Biga diskoetxearekin

Bederatzi lagunek osatzen dute Iparraldeko Xutik! taldea, eta gehienak Zpeiz Mukaki elektro-txarangan aritutakoak dira. Diskoak ska eta reggae ukituak dituzten 14 doinu biltzen ditu.



GIZARTEA → 10

Inoiz baino ume gehiago etorri dira aurten Saharatik uda pasatzera

KIROLA → 28

Ane Petrirena sunbildarrak eskuratu du urrezko domina kadete mailako Espainiako Atletismo Txapelketan



OSPAKIZUNAK → 41

Dena prest Baztandarren Biltzarrerako uztailaren 17an

Langabe kopurua %88 handitu da

azkeneko hiru urteotan **Doneztebeko Enplegu Bulegoan** | ERREPORTAJEA → 4-5

2011ko maiatzean

1.110 langabe






ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA

Bittiria 26

SALTOKIA

Plaza Zaharra 27

LESAKA

Tel. 948 63 77 80



web orri berria | www.mueblesordoki.com

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

gure bezeroek
aukeratutako
proiektua **can**
proiektu
zenbakia
15.996

Zure laguntza eskertzeko

DOKUMENTU-POLTSA

bat izanen duzu opari



Boligrafo, identifikazio txartela eta mugikorrerako konpartimentuak



ttiipi-ttapa

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA abenduaren 30a baino lehen.

Mizel Zamora (Senpere) eskusoinua, tronpeta eta tronboiarekin; Peio Iziaga (Ezpeleta) ahotsa; Orzi Hegoas (Miarritze) bateriarekin; Txomin Dhers (Urruña) teklatuarekin; Amaieur

Coscarat (Miarritze) baxuarekin; Patxi Bidart (Baigorri) gaita eta saxofoiarekin; Maitena Beheran (Donibane Lohizune) ahotsa; eta Pierre Balacey (Luhuso) eta Sebastien Sedes

(Makea) gitarrarekin. Lagun talde honek osatzen du Xutik musika taldea. 2008an sortu zen eta duela gutti euren lehendabiziko diskoa kaleratu du: *Mukaki Zpirit*.

Mizel ZAMORA | Xutik taldeko musikari senperrarra

«Publikoa dantzara eramán nahi dugu aldarriak eta ama hizkuntza atxikiz»

G. PIKABEA | SENPERE

Xutik taldea Zpeiz Mukaki taldearen bidetik sortua da, ezta?

Bai, Xutik taldearen oinarria Zpeiz Mukaki da. Zpeiz Mukaki taldearekin 2006an hasi ginen, herriz herri, Euskal Herri osoan ibiliz, elektro-txaranga batekin, zortzi dantzari ero eta alaitsurekin ondoan eskoziar gona bat soinean. Freskura apur bat ekarri nahi ginuen euskal dantza tradizionaleri, bereziki musika aldatuz. Rock, punk eta ska musika estiloekin dantzarazten genituen gure inguruak eta gure lagun dantzariak. Gure artean harremanak sortu dira eta nahi ginuen eszena tokiko abentura bat hasi, hortik sortu da Xutik 2008 urte bukaeran. Hainbertze urtez bertsoiak jo eta gero, gure kantuak egin nahi genituen. Sorkuntza lana ezezaguna genuen baina hala ere, proiektu hortan sartu gira.

Zein helbururekin sortu zenuten taldea?

Zpeiz Mukakiren izpirituarekin, erran nahi da gure publikoa dantzara eta mugimendura eramán nahi dugula. Beti atxikiz gogoan gure aldarriak eta gure ama hizkuntza.

Ipar Euskal Herriko hainbat txokotako ki-deak bildu zarete...

Lehenik, musika talde



UTZITAKO ARGAZKIA

Mizel Zamora senperrak hainbat musika tresna jotzen ditu, argazkian tronpetarekin.

bat izan aitzin, lagun talde bat gira. Horrek gure artean lotzen gaitu. Gero, gure nahia jendea dantzaraztea da, mugiaraztea erritmo goxo batzuekin batzuetan, bortitza goekin bertzeetan. Gure ama hizkuntza eta gure aldarriak adieraziz kontzerturo.

Orain artekoaren zein balantze eginen zenuke?

Kontzertu anitz egin ditugu. Ekainaren 21ean Musikaren besta kari, Baionan egin genuen kontzertua gure 58garrena zen. Eszena eta kalea gure mundu da. Plazer handia hartzen dugu taula-

DISKO BERRIA

«Denetako musika estiloak badira *Mukaki Zpirit* diskoan, baina beti musika alaia. Gure soinuean kumbia goxo batetik, ska-ra, rock gogor batetik pasatzean eta disko/pop estiloa ageri dira. Gure musika oso eklektikoa da eta denei zuzendua. Eguneroko bizian hartutako gai desberdinak aipatzen ditugu eta hunkitzen gaituzten gaiak dira, errealitate politikoa, kulturala, besta...»

ren gainean. Gehienbat Iparraldean egin ditugu kontzertuak momentuko (hirulaurdenak), baina geroz eta gehiago Hegoaldean joko dugu. **Nolako diskoa da *Mukaki Zpirit*?**

Denetako musika estiloak badira disko horretan, baina beti musika alaia. Erran nahi dut gure soinuean kumbia goxo batetik (*Has bizi*), ska-ra (*Galdua*), rock gogor batetik pasatzean (*Nun*) eta disko/pop estiloa (*Badoa*) ageri dira. Gure musika oso eklektikoa da eta denei zuzendua. Bertzetik, eguneroko bizian hartutako gai des-

berdinak aipatzen ditugu, hunkitzen gaituzten gaiak dira, errealitate politikoa, kulturala, besta... **Zergatik izen hori?**

Oso zaila da esplikatzeari, baina erranen nuke pasibotasuna haustea dela. Bazterrak harrotzea, umorea, dantza eta harremanak sortuz. Alaitasuna eta umore ona hedatzea.

Zer moduzko harrera izaten ari da diskoa?

Orain arte diskoaren inguruan izan ditugun kritikekin gustura gelditu gira. Batzuek gogoko, bertzeek guttiago, baina kritika guziek aitzinera pausoak eginazten dizkigute.

Nolako uda heldu zai-zue?

Agian beroa eta alaia! Zuzenekoetan hasiak gira eta poliki-poliki kontzertuen lotzen ari gira.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Gerora begira ez dugu aurreikuspegirik. Poliki-poliki bagoaz. Ideia eta proiektu anitz ditugu eta talde bezala, bakoitza aztertzen eta eztabaidatzen dugu. Lehenago erran bezala, musikariak izan aurretik lagunak gira eta etorkizunera begira lehenik gure lagun-tasun hori babestu eta indartu nahi dugu. Musikari dagokionez, gure diskoa zuzenean aurkeztu ondotik, ea bigarren batean murgiltzen giren!



Lan eskariak gero eta ohikoagoak dira egunkari eta aldizkarietan.

LANGABEZIA → BAZTAN-BIDASOALDEAN ETA LEITZALDEAN

Duela hiru urte baino 519 langabe gehiago daude gaur egun eskualdean

2008an hasi zen krisi ekonomikoak langabeziaren gorakada nabarmena ekarri du

Hiru urtez buelta eman du lan egoerak eskualdean eta bira hori okerrerrako izan da. 2008koak baino aunitzez ere datu okerragoak dira oraingoak. Izan ere, duela hiru urte baino 519 langabe gehi-

go daude gaur egun Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emanak. 2008az geroztik igotzen joan da langabezia, historiako daturik altuenera ailegateraino, otsailean 1.215 langabe izatera, alegia.

G. PIKABEA

Batzuek hilabeteak eta hilabeteak eta berzteek urteak eta urteak. Langabeziaren zurrunbiloa horrela da. Lana egin nahi eta ezin. Langabezia daude, bai, baina ez horregatik geldirik. Gehienak saiatu dira lana bilatzten, eta segitzen dute. Baina krisi ekonomikoak

lana kendu die eta ezin dute deus aurkitu. Horrelako 1.110 historia kontatu genitzake eskualdean, langabe bakoitzaren kasua desberdina baita. Ezaugarri bakarra dute amankomunean: lanik gabe daudela.

Azken hilabeteetan, beheranzko joera hartu du langabe kopuruak gu-

re inguruan, eta duela hilaubete batzuk langileak kaleratu ondotik, berriz jendea hartu duten enpresak ere badira. Baina joan den urtean garai berean, orain baino langabe guttiago zegoen. Lerro hauek idazterakoan eskura zeuden azken datuak maiatzekoak ziren, eta horien arabere-

ra, Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emandakoak 1.110 ziren. 2008an somatu ziren krisi ekonomikoaren lehenbiziko ondorioak eta geroztik, langabeziak nabarmen egin du gora. 2008ko maiatzean 591 langabe zeuden Doneztebeko Bulegoan, 2009an 968, 2010ean 1.094 eta aurtengo duela hiru urte baino 519 langabe gehiagorekin joan da maiatza. 2009ko martxoan gairitu zen 1.000 langaberen muga eta historiako langabe kopururik altuena aurtengo otsailean zenbatu zen: 1.215.

Maiatzeko datuei erreparatu, zerbitzuen arloa da alde haundiarekin langabe gehien dituen: 671. Industria eta erakuntza datoz gibeletik, 192 eta 144 langaberekin, hurrenez hurren. Lehendik lanik gabe zeudenak 80 dira eta 23 nekazaritzan. 25 urtetik gorakoak dira lanik gabe dauden gehienak, eta bereziki emakumezkoak: 495. Gizonezkoak 271 dira. 25 urtez beheetikoe-

MAIATZEKO DATUAK	
HERRIA	KOPURUA
Arano	6
Arantza	19
Areso	4
Baztan	270
B. Labaien	7
Bera	165
Bertizarana	36
Donamaria	19
Doneztebe	109
Elgorriaga	12
Eratsun	6
Etxalar	30
Ezkurra	5
Goizueta	38
Igantzi	27
Ituren	12
Leitza	113
Lesaka	137
Oiz	12
Saldias	7
Sunbilla	44
Urdazubi	7
Urroz	5
Zubieta	11
Zugarramurdi	9
GUZTIRA	1.110

tan gizonezkoak dira langabe gehienak, 88, eta emakumezkoak 56.

LANGABEAK SOLASEAN



Jexux BIDEGAIN | Irurita

«Bat-batean enpresako erdiak kanpora bidali gintuzten, lana jeitsi zela erranez»

22 urtez aritu da lanean Jexux Bidegain (41 urte) Oronoz-Mugairiko Marmoles Baztan enpresan. «Azpi-azpitik hasi nintzen eta gero neurtzen ikasi eta obrak neurtzen hasi nintzen». Urteak egin zituen horrela, baina azkenaldian gauzak okertzen joan ziren: «gauza ez zihoala ongi ikusten zen, eta bat-batean enpresako erdiak kanpora bidali gintuzten, lana jeitsi zela erranez. Ordu-ra arte urte onak izan ziren, lanean gogotik aritu ginen». Horrela kontatu digu Bidegainek. Bera tartean zela, 17 lagun kalera-tu zituzten abendu hasieran eta geroztik langabezian dago. Bere irudiko, «zortea dut eta ez dut deus ordaindu beharrik. Ez dut familiarik, pisu bat ordaindu nuen eta orain amak aguantatzen nauen bitartean berekin egonen naiz». Lana bilatzeko aukera haundirik ere ez du izan, eskia-tzen ari zela lesio bat izan eta hezurrak hautsi baitzuen. Orain etxean laguntzen aritzen dela erran digu: «osabek behiak dituzte eta pixka bat laguntzen diet». Baina hainbetez urtez lanean egon ondotik, «arraroa» egiten zaio langabezian egotea. «Gaiari buruz solasten hasten naizenean, korapiloa jartzen zait», aitortu digu. Langabeziatik kobratzen duenarekin, hilabete hondarrera ailegatzeko arazorik ez omen du, baina lana da berak nahi duena. Gainera, ez dio sobera baikor begiratzen etorkizunari: «gauza nola dagoen ikusita...».



Isidro ETXEBERRIA | Lesaka

«Borrokatzuz gero, fabrikari ez sartzeko beldurra du jendeak baina egin behar da»

ArcelorMittal eta Zalain Transformatados lantegietan ibilia da 25 urtez Isidro Etxebarria (48 urte), ebentual. Baina orain hiru urte «krisia zela eta» bidali egin zuten. Geroztik lanik gabe dago, inolako laguntzarik kobratu gabe. Deus jaso gabe egonik, familiarari ematen dizkio eskerrak: «amarekin bizi naiz eta eskerrak, bertzelaz ez dakit zein egoeratan egonen nintzatekeen». Langabezian dago, baina ez, lana bilatzen saiatu ez delako: «curriculumak han eta hemen banatu ditut eta bat nekatu egiten da». Halere, orain itxaropen apur bat piztu zaio: «sindikatuarekin berri sartzeko saiatzen ari gara. Gaizki portatu da lantegia gurekin eta ea orain lortzen dugun». Bere hitzetan, «lehen lesakarrak eta ingurukoak sartzen ziren lantegian, baina orain kanpokoa jendea hasten da, *entxufe* bidez». Lantegia Lesakan izanda, horren ondorioak somatzen dituzten herritarrek lantegian aukera beharko luketelakoan dago: «garrai txarra da borrokatzeko, baina egin beharra dago. Borrokatuz gero, fabrikari ez sartzeko beldurra du jendeak, fabrikari jatekoa ematen duela eta ez dago inolako borrokatzeko. Bai, fabrika hemen dago, baina kanpotarrekin, eta lesakari eta ingurukoak kanpoan». Beretzat garai «gogorak» izaten ari direla ere aitortu digu: «nire bizitza airean dago». Bainabadi lanerako gogoia, eta edozein lantegian ariko litzatekeela eta esperientzia baduela erran digu.



Kattalin PAUL | Zubieta

«Udalek eta Gobernuak neurriak hartu beharko lituzkete hemen lan eta bizitzeko aukera emanez»

Biologia ikasketak eginak dituen Kattalin Paulek (24 urte) EHU, eta bigarren hezkuntzako irakaslearen formazio masterra ere bai NUPn. Ikasitakoaren haritik, biologiarekin zerikusia duen lana nahi du, baina ez du lortzen. Bertze lanetan ibili den arren, maiztaren 29az geroztik, langabezian apuntatua dago. Alokairuan bizi da eta esan digunez, «ez dut beste gastu aipagarririk. Asteburuetan ostalaritzan lan egiten dut eta hor irabazitakoarekin bizitzeko haina badut». Baina berak bertzelako lana nahi du: «egunero begiratzen dut Interneten eta curriculumak bidaltzen ditut. Halere, gehienetan lan hauek ez dute biologiarekin zerikusirik eta hori da bilatzen dudana». Krisi aurretik ere arlo honetan lana zaila zegoela aipatu digu eta «orain zailagoa» delakoan dago. «Egoerak ikasketak akitu eta berehala harrapatu nau, ez dut esperientziarik eta hori oso garrantzitsua da, lan eskaintza gehienek hori eskatzen baitute». Eskualdean lan arlo horretan dagoen gabezia ere aritu zaigu, «gutxienez Iruñea edo Irunera joan behar da zerbait harrapatzeko». Administrazioei ere zuzendu zaie: «eskualdeak lan merkatua zabaltzea behar du. Gaur egun, edo 3. sektorean lan egiten duzu edo kanpora mugitu behar duzu, horrek dakartzan eragozpenekin. Udalek eta Gobernuak neurriak hartu beharko lituzkete biztanleei hemen bizi eta lan egiteko aukera emanez».



Mikel PERURENA | Goizueta

«Bost urtez lan eginda aurreztu dut baina ez dut atta eta amaren kontura bizi nahi»

Lanbide Heziketako Erdi Mailako mekanikari ikasketak egin zituen Mikel Perurenak Hernanin (24 urte) eta ikasketak bukatuta, bost urte eta erdi Hernaniko ladrillo fabrika batean egin zuen lan. Azken urte eta erdian, ordea, lanik gabe dago: «20-30 ebentual ginen eta denak kanporatu eta ni bakarrik gelditu nintzen. Beste zortzi bat hilabetez segitu nuen baina lanean ari nintzela min hartu nuen». Bi hilabetez egon zen bajaran eta «baja bukatutakoan, lanetik bidali ninduten». Krisia tarteko, kalte ordaina jaso eta etxera. Langabezian gelditu eta bizpahiru hilabetera hasi omen zen curriculumak banatzen, «baina alfer-alferrik», dio. «Batzuk deituko dutela esaten dute eta ez dute egiten eta besteek ez dute curriculumak hartzen ere eta nahiago horrela, gutxienez erantzuna badakit». Orain arte langabezia kobratu duen arren, uztailetik aurrera hori ere bukatu zaio. Kontatu digunez, gurasoekin bizi da eta «juerga eta autoa» kenduta, gastu adierazgarririk ez omen du eta ekonomikoki ere ez omen dago gaizki: «bost urtez lan eginda aurreztu egin dut, baina ez dut atta eta amaren kontura bizi nahi». Lana bilatzeko sobera itxaropenik gabe dago eta bitartean, attari ardiekin laguntzen segitzeko asmoa du. Halere, argi du hortik ezin duela aurrera atera: «gizarte segurantzaren edukitzeko lana egin behar da eta gazteak bere soldata nahi du».



Nire txanda
Iñaki ALUSTIZA

ZMZ?

Zer moduz zaudetete? Udaz disfrutatzen? Batek edo bestek esanen du: posible den bezala. Hala da, garai hauetan bizitzen ari garen lan egoera, hagitz gogorra dela badakigu, galdetu bestela langabezia dagoen edozeini. Lanean dagoena ere, geroz eta baldintza kaxkarragotan, ezin kexatuz eta etorkizun beltzarekin. Gainera golpe bat bestearen atzetik jasotzen dugu, gaizki eginak errurik gabe jasaten. Badakizue, Fitok dioen bezala: *la vida es algo que hay morder*, euskaldunak borrokalaria gara eta ez dugu etsiko. Bizitzan gaizki egindakoari, ongi eginez erantzun behar zaio: ongi egindakoa beti suertatuko da garaile, nahiz erasoan, zein defentsan. Udarekin jarraituaz... eguzkia maiz ateratzen da baina egoera bakoitzaren arabera ez du beti irri bat agertarazten, ezta? Lasai, berriro ere iritsiko da eguna, eguzkia ateri eta gehiengoaren irria agertuko duena. Ezina ekinaren ekinez egina.

«Bizitzan gaizki egindakoari ongi eginez erantzun behar zaio»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Eguzkia eta itzala

Eguzkiak duen onena itzala dela aditu dugu aunitan (ados). Iruñean ere, dolea eta gehiengo ordaindu behar dute zezen plazako itzala hartzeko duten jaun-andere serioek, eguzkitan parrandarekin segitzen duten peñakideek baino. Orduan, zergatik itzaleko terraza batean, ahal bada aire egokituarekin, bapo bazkaldu orduko hondartzan kixkaltzera ateratzeko halako prisak?

Nabarmentzekoak



Jabier MARIEZKURRENA
Doneztebeko kamioi gidaria

Europako txapelketako karrera lehen aldiz irabazi du. Garaipen historikoa Nogaron (Frantzia) lortu du ekainaren 19an, espainiar estatuko talde pribatu batek European lortzen duen lehena.



Ane PETRIRENA
Sunbillako atleta

Kadete mailan, Espainiako txapelduen suertatu da 300 metroko lasterketan. Gainera, 22 urtez indarrean egon den Nafarroako errekorra hobetu zuen (40:82) 14 urteko sunbildarrak.



Xabi ARANGUREN
Igantziako txirrindularia

La Indurain txirrindularitza proban lehen postua eskuratzen duen eskualdeko lehen txirrindularia izan da. Ibilbide luzean egin zuen gainera, 9 laguneko tropel-txoaren burua hartuta.

Atzera begira → 1998.07.16 / TTIPI-TTAPA 234. zbk



Larrungo Tren Ttikiaz solasean

1924. urteko apirilean egin zuen lehendabiziko joan-etorria Larrungo Tren Ttikiaz. Orduz geroztik, milaka eta milaka turista eramanez dituzte Saint Ignaceko lepotik Larrungo kaxkoraino. Udako egun ederra delarik, banaz bertze 4.000 turista igan ohi dira Euskal Herriko mendirik bisitatuenera. Elias Tapia, Larrungo tren eta Sarako lezeetako zuzendariak orai 13 urte TTIPI-TTAPAri aipatu zionez, «Sarako herrian badugu suerte bat, baditugu bi leku ikusgarri, Iparraldeko hiru leku bisitatueneratik 2 ditugu Saran, bat Larrungo gaina, urtero 350.000 baino gehiago biltzen dituen, eta bertzea lezeak».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Publizitatea Usoa Vicente, Kulturkari SLU Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellexea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Badoaz eta gelditzen dira

Tere SAEZ (Berdintasunerako teknikaria)

1 5M mugimenduko asanblada batzuk plazetatik erretiratzea erabaki dute, Iruñean bezala, egun zehatz batzuetan berriz ere biltzeko, elkarrekin topaketak eta mobilizazioak prestatzeko eta mugimendua auzoetara eta bertze herrietara hedatzeko. Plaza horietan, aldrebes jartzen ahal zen (ezkerreko aldetik) unibertsoaren galtzerdia. Plaza horiek egiazko Parlamentuan bihurtu dira, irakaskuntzaz, ekonomiaz, kulturaz, inmigrazioaz, feminismoaz, etika politikoaz... solasteko. Leku horietan, politikoez hain zanpatua duten hizkera politikoki zuzena landu da: errespetua, ardura, elkarbizitza, kontsentsua... Gauza xumeak, naturalak, arruntak... eskatuz, ... elkarrekin zentzuzko ttikikeriak amestu dituzte eta aunitzek handik pasatzerakoan «gureak dira; gu gara» pentsatzen genuen. Egia da gazteriak eraman duela norabidea eta hori zoragarria da, eskubideak dituzten helduak izateko eskubidea aldarrikatzen ari baitira. Iritzia emateko, erabakitzeke, kuestionatzeko «adin nagusitasuna» eskatzen dute, pankartak batek zioen bezala, «Lau urtetik *polbo* bat ez da bizitza sexuala; lau urtetik boto bat ez da demokrazia».

Alderdietatik kanpoko mugimendu bat, gizarteak duen konfidantza eza hautsi duena, mundu guziari bere argudioak aurreiritzirik gabe azaltzeko aukera eman diona. Herri altxamendu guziek bezala, 15M honek erakutsi du espontaneitateak berezkoa duela antolaketa; Pankartak zioenez, «Hobe antolatutako eta arau guttiagoko mundu baten alde». Eta maitasuna da garrantzitsuena. Hor, berez sortzen dira elkartasuna, pazientzia, ardura, zaintza, sakrifizioa, ohitura onak. Pertsona onak garela sentitu eta izan nahi. Iraultza guziak maitemintze kolektibo dira. Mundua eraldatu behar da.

Orain, asanbleismoa eta egiazko demokrazia mantentzeko bertze modu batean antolatzea erabaki dute. Eta hori izanen da seguruenik dagokiona. Arriskuak da aldegitia, baina gelditzea ere arriskutsua da. Baina segurua da behin eta berriz itzuli beharko dela, proposamen eta hausnarketa gehiagorekin. Itzule-ra horietako bat Sanferminetan izatea proposatzen dut nik, hemengoan eta kanpotik bisitatzen gaituztenen topagune bezala berreskuratzeko besta horiek eta ez negozio eta bazterketaren eremu bezala.

Analista batzuentzat 15M hori Utopia da. Nik Santiago Alba Ricoren hausnarketarekin bat egiten dut: «Utopiek mundua erein, aktibatu eta mugitzen dute». Mugimendu honek sistemaren flotazio-marra kolpatu du, bere barrenak kuestionatzen ditu eta gutxienez, «Bertzelako mundu bat posible da» dioen hausnarketa horrendako lagungarria izanen da. Eta nik diot, gure Nafarroa honetan ere behar beharrezkoa da.

«Plaza horietan aldrebes jartzen ahal zen (ezkerreko aldetik) unibertsoaren galtzerdia»

Bizitzeko eskubidea

Joseba URRUTZ

1 948an adierazi ziren giza eskubideak, eta horietako bat, bizitzeko eskubidea da, seguraski garrantzitsuena.

Kristauen aginduen artean ere agertzen da: «ez duzu inor hilko». Eta honekin erran nahi dut, lagun urkoaren bizia errespetatzeko ideia, Giza Eskubideen deklarazioa baino lehen ere agertu zela. Gizakiak, pentsatzeko gaitasuna garatu duen neurrian, balore etiko batzuk sortu ditu, eta uste dut hortik datorrela bizitzeko eskubidea. Eta mendeak pasa hala, balore horiek gure izaeran errotu dira, edo guttienez hala ematen du uste dugula. Nik orain ez dut garbi benetan errotua ote dugun gizaki guztion biziak balio bera duela, garenak garen bezalakoak izanda ere, adibide batzuk azalduko ditut.

Osama Bin Laden-en hilketa zela eta, telebistako programa batean, karrikan hartutako jendeari galdetzen zioten ea zer iduritzen zitzaizen hilketa hori. Eta batzuk, zalantza itxura emanez eta garbitasun guttiarekin, zera zioten: «bai militarrek gizon hau epaiketarik gabe hil dute eta itsasora bota, behar bada ez dago ongi egiña, baina..., baina berak ere jende aunitz hiltzea agindu zuen, eta...» Eta nik diot: ..eta? Orduan heriotza merezi al zuen? Hara! Hor ikusten da garbi «borondate oneko jendeak» ere, zigor eta sariaren eskemari eusten diola, alegia, onak direnak aitzinera, gaiztoak berriz, hil daitezke. Euskal Herrian bertan maiz aipatu izan da, alde batetik edo bertetik, ez direla heriotz edo hilketa guztiak berdind baloratzen.

Noizbait ere entzun izan dut, «demokrata» deitzen direnen ahotik, ETaren ekintzek Francoren garaian arrazoia izaten ahal zutela, baina gaur egun ezetz. Orduan zer erran nahi da, Francoren garaian bizi batzuk ez zutela balio eta gaur bai?

Errepidetan ehunka pertsona hiltzen dira European astero, eta ez da alarrik, E. Coli dela eta hamar batzuk hil direlako berriz, kristoren saltsa. Ez, gaur egun oraindik bizi guztiak ez dute berdind balio, nik behin behin ez dut garbi, ez da berdina hurbileko edo urrutikoa baldin bada zendua, edo maite duguna edo ez. Ez da hala?

«Hor ikusten da garbi 'borondate oneko jendeak' ere, zigor eta sariaren eskemari eusten diola, alegia, onak direnak aitzinera, gaiztoak berriz, hil daitezke. Euskal Herrian bertan maiz aipatu izan da, alde batetik edo bertetik, ez direla heriotz edo hilketa guztiak berdind baloratzen»

Irakurleak mintzo

Mila esker,
Lesakako
herriari

Onin Taldea

Herriko Etxean zortzi urte eman eta gero, behinik behin, eskerrak eman nahi dizkiegu batez ere momentu latzetan (horrelakoak ere izan baitira) gure ondoan izan diren horrenbertze herritarri, baita beren iradokizunak egin dizkigutenei ere: 21 agenda, mugikortasuna, berdintasun- eta kontziliazio-plana, herriko karriken izendegia (kontuan hartu ez baziren ere), etab. Ez ditugu ahantzi nahi udal langile eta teknikariak; horietako gehienak profesional handiak dira, eta jakin izan dute denentzat lan egiten, gobernuarentzat nahiz oposizioarentzat. Erakutsi dute profesionalak direla, baina badakigu batzuei garesti atera zaiela gu zinegotzi gisa tratatzea, nahiz eta gu horixe ginen. Eskerrik asko denoi, benetan.

GARAI BERRIA:

Talde gisa, bertze etapa batean gaude. Irabazi-asmorik gabeko elkarre bihurtu gara, eta helburu argi bat dugu: gure herriaren bizi-kalitatearen alde lan egitea. Horrela funtzionatu nahi dugu heldu diren lau urteetan.

Nola lan egiten dugu? Taldearen webgunea mantenduko dugu (www.onintaldea.com), informazio-tresna gisa. Bereziki, lau gairen inguruan lan egin nahi dugu:

kultura, ingurumena, bolutarioria eta berdintasuna.

Onin Taldeak herritar-talde plurala izaten segituko du, eta herritarren ongizatean interesa duen edozeinek izanen du tokia Taldean, baita gure laguntza ere.

Irailetik aitzinera, gure estatutuak, ideiak eta helburuak agertuko dira webgunean. Sartzera gonbidatzen zaituztegu, informazioa jaso dezazuen eta, nahi izanez gero, proiektuan parte har dezazuen.

PARTE-HARTZEA:

Uste osoa dugu momentu hau parte-hartzeak dela, eta hala erraten dugu azken urteotan udal-bizitzan izan dugun esperientziarengatik; udal-kudeaketan, gogorra izan da esperientzia, baina orain ez dugu horren baloraziorik egiten, aunitzetan egin dugula, baina azken hauteskunde hauetan ere. Lesakarak EZ erran diogu esperientzia handia eta hagitz finkatua zuen kudeaketa mota bati, eta BAI erran diogu, lau urterako gure konfiantza emanez, gestioan esperientziarik ez duen kudeaketa mota gazte bati, ilusioz beterik dagoelako, ikasteko gogo duelako eta, batez ere, herritarrei aditzeko eta beren proposamenak kontuan hartzeko gogo duelako. Ekonomikoki, Udala hagitz garai gogorak bizitzen ari da; zaila da herritarren dirua kudeatzea, batez ere, lehentasunak zehaztean; horregatik da hain garrantzitsua parte-hartzea.

Bota bertsoa

Gorka URTASUN (Baztango bertso eskola) • Doinua: Martxa baten lehen notak

Baztandarren Biltzarra: Eskuarak batzen gaitu

Uda iritsi eta santuak dabiltz ahotik ahora San Juan, San Pedro baita San Fermin eta Santiago gerora nik santurik ez duen besta bat ekarri nahi dut gogora bertan baztandar euskaldun denak gain gara Elizondora koadrodun zapi, boneta beltza bonbatxo ta alkandora herriko istoriaren zati bat erakusten duen orga hauxe da noizbait probatuz gero utzi ez litekeen droga guretako hau besta egun bat baina aunitz gehiago da.

Lehenik eta behin hemendik noa gonbitea luzatzera etor zaitezte nahi duzenok egun hontaz gozatzera tragoxka batzuk, kantu ta dantza badago mila aukera baina orain nik, bestaren funtsa banao gogoratzera "Euskerak batzen gaitu" leloa urteetan darrai aurrera nahiz ta poliki izan bagoaz nahi duguna izatera gure nortasun identitate finean delako bera besta honexek bultzatzen baitu Baztan ta bere euskera.

Udal berriak batzordeak irekitzen baditu parte har dezagun, joan egiten gara, eta animatu nahi zaituztegu zuek ere joatera; ez bakarrik udalbatzordeetara, baita Euskara Batzordera, Andramariren Patronatura edo Musikako Eskolako Patronatura ere. Espero dezagun 21 agenda berriz martxan jartzea, ez bakarrik Lesakan, baita eskualde osoan ere. Aunitzek ezagutzen duzue, dagoeneko, bere garrantzian antolatu ziren eztabaidaguneetan parte hartu zenutelakoz.

ZORIONAKI!

Lesakako Gobernu berriari zorionak eman nahi dizkiogu, eta beren programa betetzera animatu. Oposizioari (gorrotorik gabe, baina gauzak gogora ekarrita) erran nahi diogu hauteskundeak norberak galtzen dituela, hausnar dezala horrenbertze urteetan zehar egin duenari eta egin ez duenari buruz, eta animatu nahi di-

tugu parte hartzea, arduratsua izatera eta proposatuko zaizkien ardurak onartuta lan egitera.

Benetan uste dugu Udalak ongi funtzionatuko duela taldean lan eginez gero, eta, horretarako, gauza bakarra behar da: borondatea.

AGURRA:

Arestian aipatu dugu esperientzia gogorra izan dela, baina erran ere egin behar da atsegingarria eta aberasgarria izan dela. Aunitz ikasi dugu, ez bakarrik zinegotzi gisa, baita pertsona gisa ere. Jende aunitz ezagutu dugu; bertze esperientzia batzuetatik ikasi dugu, baina, batez ere, oharu gara zeinen garrantzitsua den barrenean dagoenarentzat ekarpenak jasotzea, hori hagitz lagungarria baita, eta zeinen garrantzitsua den aditzea, kanpoan dagoenak kontuan hartzen zaiola sumatzen baitu.

Eta honen bukaran, ezin ditugu ahantzi dagoeneko gurekin ez

daudenak, Fermin eta Kote. Ziur gaude kontent egonen liratekeela eman dugu pausoarekin eta dauden tokitik beren babesa ematen segitzen dutela.

Nahi duzen arte.

Eta zuei guzietan, besta onak pasa ditzazula, nahi duzen arte.

Gora SANFERMIN!!!

Esker mile
emandako
laguntzagatik

Oxkarren familiakoa

Isil-isilik eta ustekabean joan zaigu gure Oxkar, pertsona maitagarri eta umila. Beti jakin izan du aditzen, beti egondu izan da familia eta lagunen ondoan, herriari eta sortetxeari lotua, eta beti agertu izan ditu bere borondate eta bihotz ona. Umiltasunean eraman zizuten bizitzan tokatutako

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net

Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**

Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Irakurleak mintzo

momentu gogorak. De-
na irria ezpainetatik inoiz
kendu gabe.

Orain, ondotik joan
zaigun honetan, hutsu-
ne haundiarekin gelditu
gara, baina ahaztezi-
nezko oroitzen onak
utzi dizkigu. Kolpe gogo-
rra izan da familiarentzat
baina jaso dugun eta ja-
sotzen ari garen lagun-
tza eta babesa izugarri-
ak izan dira eta horrek
pena arintzen lagundu
digu. Oxkarren lagun
elkartasuna haundia izan
da benetan. Hortxe egon
dira hasiera-hasieratik

gurekin eta halako kon-
painia egin diote familia-
ri, ez dakigula nola esker-
tu. Horregatik, bihotz-bi-
hotzez eskertu nahi die-
gu emandako berotasu-
na eta elkartasuna Ox-
karren lagunei batez ere,
baina baita, bere lanki-
de, herritar eta momen-
tu latz hauetan ondoan
egon diren eta guresami-
narekin bat egin duten
guztiei.

Gure ondotik sobera
abudo joan bada ere, be-
ti gogoan eta bihotzean
izanen dugu. Esker mile
emandako guziagatik.



elika
Dietetika eta elikadura

- Albulantzia dietetika eta nutrizionala
- Dieta personalizatua
- Gintza laguntza eta asistentzia
- Oinarrizko dietak

Itxna, 6 behe - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com



FRANCOEBA, S.L.
FRIGORAN UZA BARRAKAN

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke nor den Maitane Sarobe?

Pertsona arrunt bat, bere akats eta bertuteekin.

Zein afizio dituzu?

Mendian ibiltzea, palan jolastea eta irakurtzea.

1920an 500 biztanle zituen Aranok eta orain 122. Zer sentitzen duzu hori jakinda?

Urte horietan Arano nolakoa izango ote zen kuriositatea sortzen zait. Baina badirudi pixkanaka herria hazten ari dela eta ea pixkanaka goraka egiten dugun.

Hauteskundeetara ez da inor aurkeztu Aranok. Zer pasatzen da?

Inork ez duela ardura hori hartu nahi.

Zer du Suro auzoak Aranoko beste txokoek ez dutena?

Añarbe urtegitiko bista zoragarriak. **Nolakoak izanen dira aurtengo santiagoak?**

Trikitixa, pelota partidak, mus txapelketa, bertsolariak... denetatik pixka bat umore ederrean.

Zein dituzu nahiago, santiagoak, sanmartinak ala inauteriak?

Zaila da erabakitzea zein den gustukoena, bakoitzak bere xarma eta lana baitauka. Baina bat aukeratzekotan *santiyuk*, ekitaldi gehiago baitaude.

Jendea bestetan Aranora joan dadin nola gonbidatuko zenieke?

Gure herri ttiki eta politta ezagutzeak merezi duela esanez.

Gizarte zerbitzuetan zein gabezia somatzen dituzu zure inguruan?

Eskola eta medikua.

Uda honetan Elkarreko erosleei gomendatuko diezun liburua zein izanen da?

Orain asko saltzen ari den eta irakurtzeko erraza den *Haserretu zaitzte!* liburua.

Ikasketak bukatuta, orain lana edo ikasketekin segitu?

Ba printzipioz ikasten segitzeko asmoa daukat, ahal bada lana tartekatuz, bizitzeko ere lana egin behar da eta.



Maitane SAROBE → Aranoko gaztea

PSIKOBIDE PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra
HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informa zaituz!!

Kolon Pasealekua, 64 behe • 20301 - IRUN
Tel. 689 639 543 • www.psikobide.com



GIZARTEA

ESKUALDEA → BAZTAN, BORTZIRIAK, MALERREKA ETA LEITZA

Inoiz baino ume gehiago etorri dira aurten Saharatik uda pasatzera

20 neska-mutikok bi hilabete pasako dituzte

TTIPI-TTAPA

Azken urteotan beza-la, bisitan ditugu Sahara-ko haurrak uda honetan. Ekainaren 20an etorri ziren, eta gainera, inoiz baino gehiago etorri dira: Baztan, Bortziriak eta Malerrekara 18 neska-mutiko. Horietatik lauk Malerrekara pasako dute uda: Zubietan eta Iturenen banak eta bik Sunbillan; Bortziritan hiru egonen dira, Lesakan, Etxalaren eta Beran; eta Baztanen hamaika: bi Erratzun, hiru Arizkunen, bat Azpilkuetan, hiru Elizondon, bat Oronozen eta berte bat Elbeten. Berte bi mutiko etorriko dira Leitza.

Baztan, Bortziriak eta Malerrekara Saharaztan Baztan Bidasoko Saharar Herriaren Aldeko Elkartasun Taldearen eskutik etorri dira Tindoufeko errefuxiatuen kanpa-



ARGAZKIA: MIKEL GEREKA

Saharako hemezortzi neska-mutikok gure inguruan pasako dute uda.

mentuetatik eta Leitza-ra Leitza-ko Saharar Herriarekin Elkartasun Taldeak bideratuta.

ZENBAKI SARITUAK

Sahaztan Elkarateak laguntza lortzeko boletok saldu ditu eskualdeko jatetxeetan bi lagunentzako otorduak zozketatuz. Bildutako dirua Saharako haurrak ekartzeko laguntzeko izan da.

Arizkunen, Uxoajate-xean otordua irabazi duena 0178 zenbakia da, Ordoki likorerian 1.937, Bixta-eder jatetxean

1.309. **Elbeteko** ostatuan 0966. **Elizondoko** Galarzan 3.229, Eskisaroin 2.877, Kortarixarren 3.362 eta Itzalargikobordan 1.072. **Gartzaingo** Fransenen 3.201. **Le-karozko** Larraldea sagardotegian 1.482 eta Etxebertzekobordan 2.207. **Oronoz-Mugairiko** Pierresenean 2.169 eta Urgainen 2.585, **Al-mandozko** Beolan 4.288.

Donamariako Herriko Ostatuan 0398 eta Donamariako Bentan 1.599. **Oizko** ostatua 2.275. **Beintzako** osta-

tuan 4.089. **Iturengo** Altxunea erretegiari 4.545. **Elgorriagako** Hilarionen 1.778. **Zubieta-ko** Herriko Ostatuan 1.429. **Sunbillako** Iturburur 3.999 eta Ariztigailan kanpiñean 1.656.

Etxalarko Herriko Ostatuan 2.500 eta Elutsan 0578. **Berako** Errekalden 0795 eta Zubiondon 3.139. **Arantzako** Burladan 4.459, Pabloenean 1.184 eta Aterpen 2.793. **Igantziako** Allinea 3773 eta La villa 0310. **Lesakako** Koxkonta 0500 eta Kattu 3551.

LANA

«Langileak diskriminatzea» egotzi dio LABek Funverako zuzendaritzari

TTIPI-TTAPA

Funvera lantegiko LAB sindikatuak enpresa zuzendaritzaren jarrera salatzen du, «bati-pat langile batzuekiko duen jarrera eta egingandako kontratazio batzuetan hartu dituen kriterio batzuegatik». LABen erranetan, 47 langile kaleratzean, enpresak idatziz konpromisoa hartu zuen, 2014ra arte kontratazioak egin behar baziren, horiek kaleratutako langileen boltsatik eginen zituela. «Gure harridurarako—dio sindikatuak— enpresak espediente horretan ez zeuden langile batzuk kontratatatu ditu berriki, espedienteko langile batzuk deitzezkoak daudenean». Horren inguruan, enpresaren erantzuna «ez dutela langile hori enpresan eduki nahi» izan omen da. Gertakizun «arriak» dira hauek LABentzako, «are gehiago kontuan edukitzean badugu zuzendaritzak langile bat diskriminatu duela arrazoi pertsonal eta ideologia sindikal nahiz politikoagatik». Gaineratu du ez duela onartuko langileekiko bazterketarik, «gauza guzientzat pertsonak gara, gure bizitza eta duintasuna ditugunak, eta ez dugu onartuko handikeria bertzerik ez duten pertsonaia batzuk zakarra bezala erabiltzea, behar ez gaituenean zakarretara botza».

2011

BESTAK
ITUREN, ELIZONDO



ALMACO BAZTAN

GRUP **GAMMA**

KOMUNERAKO BEHAR DUZUN GUZTIA
BURDINDEGIA/LANEKO ARROPA
ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
EKONOMIKAK/ESTUFAK
ZERAMIKA/PARKET



Errepede nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

TTIPI-TTAPAk ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari

can
proiektu
zenbakia
15.996

Bigarren identifikazio berrak eta mugimenduko berrantolak

946 401 737
Herriko plaza 1110003

ITURENGO Herriko Bestak

Herriko Bestak
Herriko Bestak
Herriko Bestak

946 401 737
Herriko plaza 1110003

Ilusapaindegia
EIDER
Estetika

946 401 737

AITXUNEA ERRETEGIA

ABUZTUAN
EGUNERO IREKIA

Ongi pasu herriko bestak!

Iturengo Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
iturendar eta
bisitari guztiei



ITURENGO BESTAK EGITARAUA



Uztailak 15 ortzirala

17:00 ANTZERKIA herriko plazan. **20:00** TXUPINAZOA. Ondotik kalejira trikitilari eta txistulariekin. **20:15** Iturengo DANTZARIEN saioa. **00:30-04:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Uztailak 16 larunbata

10:00 Kalejira trikitilari eta txistulariekin. **11:00-13:00/16:00-18:00** HAUR JOKOAK (txirrista, piloten etxea, giza-tirogoma...). **17:00** MUS txapelketa. **00:30-04:00** Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.



Uztailak 17 igandea

10:00 Kalejira trikitilari eta txistulariekin. **11:00** MEZA NAGUSIA. **12:00** PILOTA PARTIDAK. Sein-Untxalo / Fagoaga-Elizalderen aurka eta Bendoiro-J.Madariaga/Juaneña-Gorritiren aurka. **18:00** EUSKAL HERRIKO EMAKUMEZKOEN TXINGA TXAPELKETA eta AIZKORA erakustaldia. **00:30-04:00** Dantzaldia KOLDO akordeoilariarekin.



Uztailak 18 igandea

10:00 Kalejira trikitilari eta txistulariekin. **10:30** PLATER TIROKETA herritarrentzat. **14:30** HERRI BAZKARIA Zubeldia eta Soto bertsolariekin. Ondotik KALEJIRA txarangarekin. **00:30-04:00** Dantzaldia AGERRALDE akordeoilariarekin





Aurten beteko dira 150 urte Elizondoko errebote plaza egin zenetik

Mariano Izeta zenak hainbat istorio eta bitxikeria bildu zituen Erreboteko Plaza aitzaki hartuta eta, bertzenaz ere, plaza horrek hitz eginen balu hainbat sekretu eta istorio izanen lituzke kontatzeko.

Gaur egun breazkoa baldin bada ere, garai batean soropila zen. Laxoaren urterik onenetan, XVIII. eta XIX. mendeetan, partida ikusgarri aunitz jokatu ziren hortxe, eta baita geroztik ere. Mende eta erdi betetzen dituen honetan, urtean zehar banaturik hainbat ekitaldi egitekoak omen dira. Horien artean izanen da Baztan eta Malerreka taldeek Elizondoko bestetan jokatuko duten Laxoa partida. Azken urteotan eskuzko pilota partida profesionalak izan dute protagonismorik handiena, nahiz eta trinkete partidak ere jokatu diren. Aurtengo bestetarako aipatutako laxoa partida, trinketekoa, erremontekoa eta eskuzkoak ere izanen dira. Baina ez da Elizondoko Santio bestetara soilik mugatuko errebote plazaren 150. urteurrena. Izan ere, udazkenean ospakizun berezi gehiago eginen direla iragarrita dago.



Dia % SUPER-BAZTAN

Santa sorribotari opa atseingul

Dia % Santiago, 60 - ELIZONDO - Tel. 948 580 453

HARATEGIA - CARNICERIA

ETXEO ARATZEAK

ZAMAIL

GANADERIA PROPIA

ONGI PASA BESTAKI

Santiago, 56B - behea
31700 ELIZONDO
Tel. 948 452 486

Belardenda eta Dietetika

Natura Etzea

BESTA ONAK PASA!!

Santiago, 47 | ELIZONDO
T. 948 580 203

- Sendabelarrak
- Produktu naturalak
- Kosmetika naturala
- Naturopatia kontsulta
- Pisu-terapia
- Zapata naturalak
- Liburuak

Albaitaritza

Materiala
Botika
Hazia

Osagarri mineralak

Bildots eta aratxeendako esnea

Xaboi eta desinfektatzaileak

Albaitack

Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak

www.albaitack.com
Tlfno.: 948 506 169

ALBAIKIDE

Tlfno.: 902 169 169

www.albaitackide.com

Albaitari zerbitzua

BAZTAN

Ferreteria

• pintara • Aratze gaitzak
• Kristalak • Tresneria • Opariak...

Tel 948 580 423
Santiago, 79 | Industriaidea
ELIZONDO

ongi pasa bestak



Ostiatu • Jaletxea
LEKUBERRIA
Bar • Restaurante **JULI**

07:00etatik aitzinera irekia

Giltxaurdi, 4 | ELIZONDO
Tel. 948 45 26 25

ONGI PASA BESTAK



Instalazio
elektrikoak

Konponketak



ANGEL TRANTXE
ELEKTRIZISTA

T. 948 452 248 | M. 679 454 113 | ELIZONDO

ANTXITONIA
Turismo



24 koadra berrizatuak - Apartaketa
Aire gutxiak gata guztietan - Hain txikiak oso TB
Gara berria eskalate eta hain zehatzak
ongi pasa bestak!



Brasil Irriate 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonia.com • www.antxitonia.com

AXULAR

Fotokopia, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak,
aldizkariak, prentsa, tabakoa eta
testu liburuak ekartzen dira enkarguz



Santiago • ELIZONDO • Tfnoa: 948 581 507

GOÑI
harategia

ONGI PASA BESTAK

Mendueta, 3 • ELIZONDO • T. 948 580 164

ongi
pasa
bestak

da

astizanaiak
ZURGINDEGIA

Zurgintza lanak orokorrean

Aldude etorbidea, 5 - ELIZONDO
Tel. 699 325 449 - 948 580 886

ferreteria
Quevedo

Babesa eta edertasuna guziaren gainetik

- Elektrizitatea
- Zerraildegia
- Erremintak
- Joareak
- Haziak...



BONDEX

Santiago 31 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 234
Faxa: 948 581 210

cocinaslaster



Diseinuko sukalde mobletan
preziorik leihakorrenak
Etxetresna marka guztietan
sekulako eskaintzak

T. 948 45 26 10 - Jaime Urrutia, 3 - ELIZONDO
www.cocinaslaster.com

Beatriz

Santiago, 53 • ELIZONDO
Tel/Faxa: 948 580 283

**ARGALTZE
SISTEMA
BERRIENA**

GRASA ELIMINATU
ETA GORPUTZA
TONIFIKATU

Elikagaien
intolerantziaren
azterketa
hasierako fitxa.
DOAN


Emaitzak
lehenengo saiotik
ikusiko dituzu

Kinikoki
egiaztatua.
21 urteko
esperientziaren
bermea





ELIZONDoko bestak EGITARAUA



Uztailak 23 larunbata

11:00 HAURREN HERRI KROSA. **12:00** HELDUEN HERRI KROSA, Baztango lasterketa taldeak antolatua. **17:00** Euskal Herriko GOITIBERA TXAPELKETA Bagordin. **23:00** Dantzaldia BIXENTErekin Ziga Plazan. **23:00** METAROCK KONTZERTUAK: Vendeta, Xutik eta Bazam taldeekin.



Uztailak 24 igandea BEZPERA

10:00 BIZIKLETA MARTXA Beartzunera. **12:00** TXUPINAZOA eta BAZTAN-ZOPAK Herriko plazan. **Ondotik** KONPARTSArekin itzulia. Herriko plaza, Jaime Urrutia, Ziga plaza, Txokoto, Braulio Iriarte, Santiago karrika, Zahar Etxetik pasatuz. **14:00** Gaztetxearen VII. urteurreneko bazkaria txoznetan, gaztetxeak antolatua. **16:00** HAURRENDAKO MARGOALDIA herriko plazan. **16:30** III. VOLEIBOL OPEN ELIZONDO. **17:00** Batukadarekin kalejira. **18:00** BEHI KK, Xorroxin irratia antolatua. **19:00** Herri kirolak plazan. NAFARROAKO II. MAILAKO AIZKORA TXAPELKETAKO KANPORAKETA. **19:30** KARRIKADANTZA konpartsa, txistulariak, gaitariak, txaranga... **20:00** SALBEA elizan. Elizondoko abesbatzak, Isabel Lacaren zuzendaritzapean, Eslavaren salbea eta Santiagoren ereserkia kantatuko ditu, organoan Claudio Zudaire eta *Recreo de Elizondo* musika bandaren laguntza izanen dute. **Ondotik** KARRIKADANTZA elizatik. **20:30** MUNDUKO PLATEREN DASTAKETA eta musika latinoa plazan. **24:00** Dantzaldia GARRAXI taldearekin.

Argazkiak: FOTO ZALDUA, ONDIKOL eta FOTO MENA



Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa F. Joakin Inarte, 5
Tfn: 948 580 337
ELIZONDO

LA BAZTANESA S.A

ELIZONDO
Tel/Faxa: 948 580 129

IRUÑEA
Tel: 948 222 223
autobuses@labaztanesa.com

ARKUPE
Gozotegia - Txokolategia

Txokolatea, urrazkoa, almendrazkoa, beltza eta xuria. Tabletak, bonboiak, trufak, Txokolate konfitatua. Tartak, etxeko izozkiak, pastelak pastak, miniaturak, bolloak...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 452 393
Iruñea - Tel. 948 452 021 - 948 580 059
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com

FOTOMENA ELIZONDO
Santiago karrika 40. T. 948 580 155 www.fotomena.com

ELISA TAXIA

677 399 302 (8 PLAZA + GIDARIA)

arteka
arkitektura arquitectura

Tel. 948380810 Plaza. Dr. Balda 1., 1. A
Fax 948452434 31700. Elizondo (Baztan)
info@artekabaztan.com Nafarroa

BC DALLARENA CONSTRUCCIONES, S.L.

EXERBITZEN ERAMUNTZA ETA ERREFORMAK
HILGINTZA, ELEKTROIZTATEA, KALEFAKZIA, AIRE-EGONKITA

Santiago, 60 behea • ELIZONDO
balarrena@telefonos.es | Tel./Fax: 948 452 395
Mug. 647 688 988 - 647 688 982

ANZABAL
INMOBILIARIA

- Zurich Asegurua
- Autoa, etxebizitza, hitzpi eta bultza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserri, bonia, piua, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/E: 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Mikel ORTEGA | Elizondoko kargoduna eta zinegotzia

«Besta batzordeak bere lana arras ongi betetzen du, besta parte hartzaileak antolatuz»

Mikel Ortega Elizondoko kargoduna eta zinegotzia da. Santioetan eta bertze hainbat bestetan gaita jotzen ere ibiltzen da. Santiotan beti ardurak izan ditu baina besta batzorde arras ona dagoenez, lasaigo ibiltzeko aukera izaten dutela aitortzen du. Aurten lehenengo aldiz zinegotzi moduan biziko ditu bestak «espero dut bestetako martxa askorik ez aldatzea. Badakit gauza puntualak egin beharko ditudala baina berdintsuak izanen direla pentsatzen dut». Bestetako egunik bereziena Zikiro Eguna izaten da berarentzat. Azken urteetan bestak lanpetuta pasa ditu «zikiroarena azken eguna izaten denez eta denak elkartzen garenez gozatzeko probexten dugu. Egun arras polita eta gozagarria izaten da».

Gaita jotzen ere ibiltzen da Mikel eta oraingoz ez du uzteko asmorik. Egun osoko lana izaten da «goizetan, eguerditan eta arratsaldetan egon beharra duzu eta besta egiteko modua aldatzen dizu. Bezperan besta handia eginez gero, egun arras gogorra izaten da gaita jotzailearena».



Urtean eta esperientziaren ondorioz bestak osorik amaitzeko indarrak kontrolatzen ikasi du.

Elizondoko bestetatik ez luke deus ere aldatuko. «Besta batzordeak bere lana arras ongi betetzen du, besta parte hartzaileak antolatuz». Azken urteetan aunitz hobetu direla gaineratu du. Jendeari Elizondoko Santio bestetara etortzeko erranen lioke. «Giro ezin hobea aurkituko du hemen».

Santioak bereziak izaten dira baina Baztandarren Biltzarra, egun bakarreko ospakizuna izanda, intentsitate handiagoa duela dio Mikelek. Zail egiten zaio aukeratzea, baina Baztandarren Biltzarra aukeratzen du. Batetik bertzer aste bete egonda indarrak hartzeko denbora ematen du eta Santiotan ere ongi pasatzen duela dio.

‘Jo ala jo’ kultur taldeko kidea ere bada Mikel Ortega. Urtero ekitaldiak egiten dituzte: Kirikoketa Besta, Gizakunde eguneko besta, Ttun- ttun Eguna, eta bi urtetik behin egiten den Piriniotan Dantzan eguna. Egun horretan Pirinio aldeko herrietako dantzariak elkartzen dira. Kultura eskaintza aldetik lan handia egin beharra dagoela dio. «Herritarren parte hartzea ezin bertzekoa da. Bai antolatzeke garaian eta baita antolatzen direnean azalduaz ere». Gauzak hobetzeko lan handia egin behar dela dio, eskaintza zabaltzeko eta denengana iristeko. Horregatik jendea gonbidatu nahi luke ekintzen prestaketan laguntzera eta ideia berriekin ‘Jo ala jo’ elkartera jotzera. «Jendea ari da mugitzen, baina oraindik kultur ekintzek bultzada behar dute».



EGITARRAUA



Uztailak 25 astelehena SANTIAGO EGUNA

09:30 ARGI SOINUAK. **11:00** MEZA NAGUSIA Elizan, elizondoko korralak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, eta *Recreo de Elizondo* musika bandaren laguntzaz Eslavaren Meza eskainiko du. **11:30** HERRITARREN ELKARTZEA elizako atarian. **12:00** KARRIKADANTZAN plazarat elizako ataritik. **12:30** MUTILDANTZAK plazan. **13:30** LUNTX HERRIKOIA plazan. **13:30** KARRIKADANTZA. **18:00** ERRALDOIEN IBILALDIA hainbat herritako erraldoiekin. **18:30** BERTSO SAIO haundia plazan. **19:00** BONBA JAPONESAK Baztan Berri Plazan edo Elizan. **20:00** ESKALADA eta RAPPELA elizako dorrean. **20:30** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin. **21:00** DANTZA HERRIKOIAK Ziga Plazan. **22:00** MUTILDANTZAK. **23:00** SU ARTIFIZIALAK Juanikotena pirotekniaren eskutik. **23:30** Plazan MIGEL ANJEL Y EL MARIATXI DE LA CANTINA. **01:00** Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

Ongi pasa bertak!

libreria **nafarpress** liburutenda

ESKATU ZURE TESTU LIBURUAK
Jaime Urutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO

Malkorra

Urrakin egina | Tartak eta pastelak
Etxean egindako izozkia

Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

BAZTANESA
PANIFKADORA

ONGI PASA BESTAKI
Edariak, izozkiak, garbikariak, pentsuak...
Banaketa eskusibaz. EGUNEROKO OGIA

Berekoetxea Gotzala, 3 | ELIZONDO
T. 948 580 305 | 948 580 138



Argazkiak: ONDIKOL

Uztailak 26 asteartea PILOTA ETA GAZTEEN EGUNA

09:30 ARGI SOINUAK Beartzunen. **10:30** GOSARI HERRIKOIA Berron. **Ondotik** ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN KONPARTSA. **11:30** LAXOA DESAFIOA: Baztan - Malerreka Erreboteko Plazan, plaza honen 150. urteurrenean. **11:00-14:00** PUZGARRIAK igerilekuan. **14:00** KUADRILLEN BAZKARIA Baztandarreneko gorapetan. **18:00** OLINPIADAK / GINKANA. Baztango herri guztietan barna, erreka jautsiera, kukaña eta orakunde moduko joku bereziek nahasiz, ginkana modura antolatua. **17:30** PILOTA PARTIDA. **18:30** HAURRENDAKO JOKUEK Erreboteko Plazan. **20:30** KANTALDIA. **21:00** DANTZALDIA Ziga Plazan. **22:00** MUTILDANTZAK. **24:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **06:00** ZINGER JATEA Merkatuko Plazan.

Argazkiak: ONDIKOL eta FOTO MENA



esarte

Santiago 83 B bajo
31700 Elizondo
T 948 581 907
www.precocinadosesarte.com



ELBETEKO POSADA
Barruhandi, 1 • 31700 Elizko (Nabarra) • Tel.: 948 581 13 82 • 948 581 13 18
www.posadaitelbete.com • info@posadaitelbete.com

**MAÑONEA
AGENTZIA**
asegururak
ONGI PASA BESTAK!



Braulio Iriarte, 9
ELIZONDO
T. 948 581 132

**GENERALI
GROUP**



elicetxe
suministras electricos

material elektrikoak
ongi pasa bestak!

Tel: 948 581 261 • Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 (Industrialdea) • ELIZONDO



**J B Iturria
CONSTRUCCIONES**
Betidanik, beti bezala, zure etxebizitza

Babes Ofizialeko Etxebizitzak – VPT
Elizondoko Baztan Berri Plazan,
3 logela, 2 bainugela,
garajea eta trastelekua.
150.000€ + BEZ

Mendinueta kalea 6, behea | ELIZONDO
T. 948 580 304 | info@jbiturria.com
www.jbiturria.com



Borja NAGORE | Elizondoko konpartsakoa

«Buruhandi edo erraldoiekin ibiltzeko gogo eta ilusio bertzerik ez da behar magia zer den sentitzeko»



Borja Nagore 26 urteko elizondarra, 15 urterekin hasi zen buruhandi eta erraldoien konpartsan. Jendea behar zela eta hasi ziren kuadrilako lagun batzuk buruhandietan parte hartzen. «Bi urte pasa genituen buruhandiekin alde batetik bertzera korrika eta 18 urterekin erraldoiak dantzatzen hasi ginen». Zortzi urte daramatza Elizondoko erraldoiak dantzatzen. Gaur egun 10-12 lagun ibiltzen dira. 1960. urtean Elizondoko alkatearen enkarguz egin ziren Elizondoko Errege eta Erregina erraldoiak. Sei buruhandik osatzen dute taldea. Inguruko herrietan ibiltzen dira gehienbat «kanpora ateratzeak lan handia suposatzen du eta denak libre egotea ez da erraza izaten».

Ez du ongi gogoratzen nola bizi zituen ttikia zenean erraldoi eta buruhandiak. «Aitak erranda dakit beldurra pasatzen nuela.

Goizetan ateratzen ginelarik beti hasten omen nintzen negarrez. Etxetik bai oihu errez egiten omen nien, baina gero azkar izutzen omen nintzen». Gaztetan beldurrak utzi eta buruhandiak zirikatuz ibiltzen omen zen. Ttikitan hiru lagun gorde omen ziren buruhandiak ikustean eta bi buruhandi pasa ziren, «gu ikusi eta gustora jo gintuzten. Oraindik gogoan dut gainera nor ziren buruhandi haietan gordeak zirenak, Enrike Petrirena eta Xabier Garmendia». Ez digu kontatu gerora mendekurik hartu ote duen. Dena den, inoiz ez omen du atzenduko momentu hura.

Zaletasuna da ezer baino gehiago erraldoiekin ibiltzea. «Nekagarria da batzuetan, gehienbat besta egiten baduzu. Baina izugarri betetzen nauen zerbait da». Alde onak gehiago ikusten dizkio txarrik baino. «Haurren aurpegia ikusteak, erraldoiei nolako miresmenez begiratzen dieten izugarria da». Momentu hori deskribatzeko hitz egokirik ez du aurkitzen lehenengoan baina, azkenean, honela dio: «Goizetako kalejira bueltako giroa magikoa da».


Buruhandi eta erraldoien barruan nor doan ez jakitea misteriotsua izaten da. «Barnean zaudenean entzuten da 'Nor ote da barnean dagoena?' baina gero ateratzen zarenean denak ezagutzen zaituzte eta misterio puntu hori galdu egiten da». Barrutik mundua nola ikusten den galdetuta magikoa dela dio berriz. «Erraldoia dantzatzen arras gustora joaten naiz, magikoa da».



ONGI PASA BESTAK!

Erloju eta bitxietan eskaintza zabala
Jantzi udako bilduma berria eta koloretsua

URREGINE
emili hernaiz
Jaime Urrutia, 20 • ELIZONDO • 948 45 26 34



**BIDEGAIN
ARRAINDEGIA**

ongi pasa bestak

ELIZONDO
T. 948 580 496
DONEZTEBE
T. 948 456 188



Argazkiak: ONDIKOL

Buruhandi bezala ibiltzen zenean, ea norbaiti ezinikusia izanez gero gustorago jotzen ote zaien galdetuta baietz erantzuten du. «Baten batek kokoteraino paratzen bazaitu, oraindik gehiago. Goiz guztia zirikatzen pasatu badu noiz harrapatu desiatzen egoten zara». Behin neska kuadrila bat beregandik gorde zen Alkullegi karrikan, portal batean sartu ziren, nesketako bat bertan bizi zelako eta balkoitik hasi omen zitzaizkion irrika. Neskak ohartu gabe, amak portaleko atea zabaldu omen zion. «Laugarren solairuraino igo, neskei sekulako sustoa eman, irri batzuk egin, kolpe batzuk eman, amari eskerrak eman atea zabaltzeagatik eta kalejirara jautsi nintzen» dio irriz. Fisikoki ez dute prestakuntza berezirik egiten bestetan erraldoiekin ateratzeko. Azken lau urtetan entsaiuak egiten dituzte bestetarako hilabete edo falta denean. «Dantzak entsaiatzeko elkartzen gara, aurten jota dantzatzen ikasi nahi genuke, baina zaila izaten da denak elkartzea». Musikaren erritmoa eramatea erraza izaten da «kuadrilarekin kalejiretan joatea bezalakoa da, desberdintasun bakarra erraldoia eraman behar duzula».

Baltsa normalki erraldoiaren bueltekin amaitzen da. Erraldoi zamalariak gogor eutsi behar dio erraldoiari ez erortzeko. Bere ardatzean bueltaka, erraldoien gonon zabaltasuna ikus daiteke. Bueltaka hastean ez omen da inoiz ere zorabiatu «ez dut gainera inor ezagutu erraldoiarekin inoiz mareatu denik». Hori bai, kontuz ibili beharra dago ez erortzeko. «Hasi berritan kosta egiten zaizu bueltak ematea, baina ohitzen zoazen heinean errazagoa egiten zaizu», esperentziarekin ikasten dela ziurtatu du Borjak.

- Olioak
- Akuatrelak
- Grabatuak
- Enkulturrak

AUZA

GALERIA - EXPOSICION

Ongi pasa bestak!!!
Felices Fiestas!!!

Tel: 948 580 046 - 609 222 181

Bereketuen Gotzain, 2 (alizeren ondoan) ELIZONDO

TEL: 948 581 015

Kris

ileapandegia

Il. Cuillerasu Kalea, 14, ELIZONDO

ONGI PASA BESTAK

MARIA MILAGROS ELGEZUA

ABOKATUA

LAITTEGIAN PARTHILARRAK

Fantasia, 7 48744
31748 DUNEITTEBE
Tel eta Faxa: 948 430 781
Mugakorra 482 625 839
marigel@hotmail.com



Argazkia: FOTO MENA

Erraldoi eta buruhandiekin ibiltzea baldintzatzen duen faktorea eguraldia izaten da. Ez bero handiegia, ez eta euria ere. «Duela 2 urte berritu zituzten erraldoi eta buruhandiak eta orain xirimiriarekin ibil gaitzke. Lehen ezinezkoa zen». Maiz pasa zaie bi pausu eman eta zaparrada hasi delako utzi beharra. Bere buruari inoiz ez dio erran utziko duenik. «Arras gustora ibiltzen naiz, lehenbiziko eguneko ilusioarekin». Afizioa edukitzeko ilusioaren beharra azpimarratzen du eta oraindik urte batzuetan segitzeko asmoa du «gorputzak eusten didan arte segitu nahi nuke behintzat». Norbaitek atera nahi izanez gero taldeko norbaitekin harremanetan jarri edo Herriko Etxean galde bertzerik ez du egin behar. «Buruhandi edo erraldoiekin ibiltzeko gogoia eta ilusio bertzerik ez da behar, magia zer den sentituko du».

Baina Borjarentzat Santioak ez dira erraldoiak eta buruhandiak bakarrik, besta ere egiten baitu. Gosaltzeko elkartzen direnetik gauera arte probexten ditu. Zikiro jatea da «gehien gustatzen» zaiona eta, bide batez, jende guztia gonbidatu nahiko luke parte hartzera.

Elizondoko bestei ez zaie deus falta Borjaren ustez «azken urtetan gainera arras besta onak antolatu dira». Santioak edo Baztandarren Biltzarraren artean aukeratzeko eskatuta, ezinezkoa zaio la dio «biak dira bereziak: Santioak nere herriko bestak direlako eta Baztandarren Biltzarra baztandarra naizelako». Erraldoi eta buruhandiak bezain magikoak dira Borjarentzat bi bestak.

SALDIASKO

okindegia
egurrezko labea

Olasoa etxea
T. 948615046
SALDIAS

ONGI PASA BESTAK

onegin

Herbodietética Ekodenda

ZERBITZUAK:
DIETISTA: Gantzen neurketa, diabetes, kolesterolarentzako dietak, argaltzeko dietak.
NATURISTA: Naturopatia, homeopatia
PRODUKTU EKOLÓGIKO ETA NATURALAK
Odol-analisiak egiten dira; kolesterola, azukrea eta triglizeridoak

Jaime Urriola, 26, beheko • ELIZONDO • 948 581 932

BENAR
ileapaindegia

Asteartetik-ostialdiera
09:30-13:00/15:30-19:30
Larunbata 08:00-14:00

0945
PASA
BESTAKI

Itxasari plaza, 58 • ELIZONDO • 948 452 443

Maite Petirena

Aseguratu agintzia • Agencia de seguros

Tel. 948 452 394
Santxoitz Plaza,
31700 Elizondo

Allianz

IRARATEGIA • URDAITEGIA • ARRAINDEGIA

Galarregi
Supermerkatua

Zerbitzu atsegina
Aukera zabala edari eta likoreetan

Santiago, 12 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 005

LABAR OBRAS Y CONSTRUCCIONES

AZKENEKO UNIFAMILIARRA OROZKENTZIT

ETXE BERRIEN PROMOZIOA
ONGI PASA BESTAKI!

SANTIAGO 55 | ELIZONDO | T. 948 580 452 | 647 91 79 43
promocioneszioz@promocioneszioz.com

ZIOZ

PROMOCIONES INMOBILIARIAS

CITROËN SANSIÑENA
garajea

- TAILER MEKANIKOA
- KOTXEEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ENGRASEAK
- ERABILITAKO NEKAZAL TRESNERIA
- AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK
- ZERBITZU OFIZIALA:

NEW HOLLAND AGRICULTURE AGRIA

Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406

KABITAZIOA 35€ saloko

Liposukzioaren alternatibarik hobereena
Saio bakoltzean 1 eta 4 cm arteko
bolumen galtzea

ESTIBALIZ
estetika zentrua

T. 948 581 360 • 606 738 466
Xalbador, 14 • ELIZONDO | Zazpigarutza, 6 • DONEZTEBE

ZER GALAN
aholkularitza

ONGI PASA BESTAKI!

ZERBITZU FISKALAK

- Aholkularitza fiskala
- Zerga agiriak
- Errenta aitortpenak
- BEZ aitortpenak
- Sometate zergak
- Zute negoziolaeren zergen kontrola

KONTABILITATE ZERBITZUAK

- Kontabilitatearen aholkularitza
- Enpresen enkiztza
- Kontabilitatearen eramatea
- Administrazio zerbitzuak
- Merkataritza - enpreztuen urteko kontuen aurkezpena

BERTZE ZERBITZUAK

- Jubilatzen eramatea
- Espalatuaren eramatea
- Lan eta erresidentzi baimenen eramatea
- Aita eta amatasun bajak
- Langabezi kapitalizazioak
- Diru - laguntzak
- Negozioen bidetagarritasunen eramatea

Baztanberri plaza, 6
31700 Elizondo
T. 948 581 300
F. 948 580648

Eliza kalea, 22
31740 DONEZTEBE (NA)
Tel. 948 450 395
Faxa: 948 451 304

www.zergalan.es

LABORRA ARKITEKTOA

T. 948 580 122
Santiago, 54 - 1ª • ELIZONDO

ONGI PASA BESTAKI!

www.laborra.com

Santiago, 43 • ELIZONDO
Tel. 948 581 442

EGUZKI-ALDE

ASTEBURUETAN MENUA

ONGI PASA BESTAKI!

GOIZALDE
ostatua

Jaime Urrutia, 8 • ELIZONDO
Tel. 948 581334



Argazkiak: FOTO ZALDUA

EGITARAUA



Uztailak 27 asteazkena HAUR, AITATXI ETA AMATXIEN EGUNA

09:30 ARGÍ SOINUAK. **10:30** IZEN-EMATEA ETA GOSARIA plater tiroketan. **Ondotik** II. PLATER TIROKETA TXAPELKETA Bagordin. **11:00** ERRALDOI eta BURUHAUNDIEKIN ibilaldia. **12:30** *Recreo de Elizondo* musika bandaren emanaldia Mariano Izeta Plazan. **13:00** AITATXI TA AMATXI GUZIEN-DAKO BAZKARIE. *Francisco Joaquín Iriarte* adinekoen egoitzan. **16:00** Elizondoko II. MUSTXAPELKETA Xalbador karrikan. **17:30** JOKUAK Baztan Berrin eta Erlategin gazteek eskainiak. Adinarean arabera: ume eta gurasoendako jokuak, altorraren bila eta ginkana. **18:30** BERTSO POTEOA gaztetxetik hasita. **19:30** HAURRENDAKO ANTZERKIA, bonba japonesak eta txokolatada. **20:30** KANTALDIA. **21:00** DANTZA HERRIKOIAK Ziga Plazan. **22:00** MUTILDANTZAK. **24:00** DANTZALDIA plazan.

Argazkiak: ONDIKOL eta FOTO MENA



Uztailak 28 ortzeguna HERRIAREN EGUNA

09:30 ARGÍ SOINUAK. **10:30** ERRALDOI eta BURUHAUNDIEN ibilaldia. **12:00** PUZGARRIAK eta KARS. **14:30** ZIKIRO JATEA Ikastolako Parkean. **16:00** PUZGARRIAK eta KARS Laxoako pilotaplazan. **18:30** ZETRERIA ETA ANIMALIA BASATIEN ERAKUSTALDIA Erreboteko Plazan. **20:30** KANTALDIA. **21:00** DANTZA HERRIKOIAK Ziga Plazan. **22:00** MUTILDANTZAK. **24:00** GIZAJUA NI eta KALEJIRA. **03:00** RADIO AFU eta SONADORES NATOS Elizondoko Plazan.



Argazkiak: FOTO ZALDUA



ELIZONDO ONIETANDAKI **MERXELDUTK**

Virgilio

Santiago,32
ELIZONDO
948 580 209

Larunbat arratsaldetan irekia
FAMILIA UGARENDAKO %10eko deskontua

Erosketa guztien
finantzaketa
300€tik hasita
60. hilabetea arte %0ko interesa
erakusketan aldatzeagatik
%40 eta %60
arteko deskontuak
ONGI PASA BESTAK!

H. LOPEZ

Santiago, 93 ELIZONDO | T. 948 452 126
www.honestolopez.com

Idoia Oteiza
ESTETIKOLOGIA

- ILEAPAINDEGIA
- BURUA GARBITZEKO AULIKIAK
SHIATSU MASAJI SISTEMAREKIN
- MAXILLAJE ZERBITZUA
- KERATINA TRATAMENTUA

Plazaburua, 9 behea | ELIZONDO | T. 948 580 390
info@idoiaoteiza.com | www.idoiaoteiza.com

Arkitanek

ERAIKUNTZA-PROIEKTUAK
URBANIZAZIO-PROIEKTUAK
ZAHARBERRITZEAK
LUR NEURKETAK eta KUBIKAZIOAK
REPLANTEOAK
OBREN ZUZENDARITZA
NABEAK
KONTSULTAK

Santiago, 54 BIS Behea ELIZONDO T. 948 581 931
www.arkitanek.com arkitanek@arkitanek.com

BORTZIRIAK

GIZARTEA → BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN ESKUTIK

Bestabusa ibiliko da bertz herrietako bestetan

Asteburuetan eskainiko da batetik bertzera ibiltzeko

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen ekimenez, Bestabusa zerbitzua izanen da bertz herrietako bestetan.

Sanferminetan, hila-ren 8an eta 9an izanen da. Lesakara joateko, Arantzatik 21:45ean abiatuko da lehen autobusa eta 23:30ean bigarrena; Igantzitik 22:00etan eta 23:45ean; Etxalartik 21:15ean eta 00:00etan; eta Beratik 22:00etan, 23:00etan eta 00:00etan. Itzulerakoak suhiltzaileen aparkalekutik aterako dira, 03:30ean eta 06:30ean Etxa-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurtengo lehendabiziko bestabusa Lesakako sanferminetan paratuko da.

lar, Igantzi eta Arantzara joateko eta 03:30ean, 04:30ean, 06:00etan eta 07:00etan Berara.

Berako bestetara abuztuaren 5ean eta 6an paratuko da autobusa eta Arantza, Igantzi eta Etxalartik Lesakara bezala abiatuko dira, baita itzuli ere. Lesakatik 22:00etan, 23:00etan

00:00etan abiatuko dira eta 03:30ean, 04:30ean, 06:00etan eta 07:00etan itzuli.

Arantza eta Etxalar-ko bestetan, abuztuaren 13an eta 14an, bide hau egingen dute: 20:45ean, 23:15ean eta 05:30ean Beratik abiatuz, Bera-Lesaketa-Etxalar-Igantzi-Arantza. 02:30ean

bertze bat aterako da Etxalartik, Igantzi pasatu eta Arantzara joateko. Itzulerako autobusak Arantzatik 21:45ean, 00:15ean (hau Etxalarrera), 03:00etan eta 06:30ean abiatuko dira Igantzi-Etxalar-Lesaketa Bera ibilbidea eginez.


Igantzi-ko bestetan ere izanen da zerbitzua.

EUSKARA

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak euskaraz erregistratu daitezkeela gogorarazi du UEMAK

TTIPI-TTAPA

Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak jakinarazi duenez, Nafarroako eremu euskalduneko bake epaitegietan herritarrek tramite oro euskaraz egiteko aukera dute. Aukera horien artean daude jaiotza, ezkontza eta heriotza erregistroak. Hortaz, herritarren esku dago erregistroak euskaraz egitea. Hala ere, arazoren bat edukiz gero, UEMARA dei daiteke (943 260372). Sei udalerridira UEMAKo kideak eskualdean: Arantza, Areso, Bera, Etxalar, Goizueta eta Leitza.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK → NAFARROAKO ARARTEKOA

Liburuzainen aferan, Bortzirietako eskariarekin bat egin du Arartekoak

Euskararen
Legea
betetzeko erran
dio Gobernuari

TTIPI-TTAPA

Urte hasieran Nafarroako Gobernuak liburutegietako arduradunen lanpostuak betetzeko deialdia egin zuen; tartean Bera eta Lesakako liburutegietakoak. Horren arabera, lanpostu horietan aritzeko ez da beharrezkoa euskaraz jakitea, eta hizkuntza hori jakitea ez litzateke meritu gisa baloratuko.

Erabaki horren aurka zenbait helegite jarri ziren. Sinadura bilketa bat ere egin zen, bereziki libu-

rutegietako erabiltzaileen artean, eta orohar herriarren artean. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak sinadura guztiak bildu eta Nafarroako Gobernuari nahiz Nafarroako Arartekoari helarazi zizkion.

Berriki Arartekoaren erantzuna jaso du Mankomunitateak. Francisco Javier Enériz Arartekoak azterketa zehatza egin du, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Sailari gogorarazi dio Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea bete behar duela, baita Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duen 32/2002 Foru Legea ere. Bi hilabeteko epea eman dio txostena egiteko, lege betebeharrak horiek betetzeko hartu behar dituen neurrien inguruan edo horiek ez onartzeko arrazioen inguruan.

Liburutegietako arduradunen lanpostuak betetzeko prozedurak aitzinera segitzen du, Barne Kontseilariak gora jotzeko helegiteetan prozedura eteteko egindako eskaerak baztertu baitzizkion.

Hip hop ikastaroa

Uztailaren 18tik 22ra hip hop ikastaroa antolatu du Labiaga ikastolak Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko 4. maila arteko ikasleentzat. 11:00etatik 12:30era izanen da. Izen-emateko epea (012 deituz) uztailaren 12an bukatuko da.



ARGAZKIA: GOIKO

Jende andana Altzateko bestetan

Giro ederrean joan dira aurtengo Altzateko bestak. Eta egitarauaren barne, dantza saio ederra eskaini zuten Gure Txokoako dantzariak larunbatarekin. Gauzez ere ibili zen jendea, gehiena bertakoa eta inguruko herrietatik etorria.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kristina Arbues igantziarra nagusi Altzateko emakumezkoen krolean

Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, ekainaren 18an jokatu zen lehenbiziko aldiz emakumezkoentzako krosa, Altzateko besten barne. 26 parte hartzaile izan ziren eta denen artean, Kristina Arbues igantziarra nagusitu zen. Hasieratik abantaila hartu eta erraz egin zituen sei kilometroak (22:46). Bigarren Irene Almandoz beratarra gelditu zen (25:07) eta hirugarren Oihana Almandoz lesakarra (26:53).



UTZITAKO ARGAZKIA

Bestaberri Eguneko prozesioa

Aitzinetik herria apain-apain jarri ondotik, eta ohiturari segituz, Bestaberri Egunean prozesioa egin zen.

Karsuk[®]
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko aitxariak

Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

LESAKA

UDALA → BATZORDE IREKietan PARTE HARTUKO DU

Irabazi asmorik gabeko elkarte gisara segituko du Onin Udal taldeak

Udalan herritarren partehartzearen garaia dela uste du

Aitor AROTZENA

Herriko Etxean zortzi urtez lanean aritu ondotik, hurrengo lauetan irabazi asmorik gabeko elkarte bezala lan egingen duela jakinarazi du Onin Udal Taldeak. Lau arlotan oinarrituko da bere lana: kultura, ingurumena, boluntarioritza eta ber-

dintasuna. Udal berriari zorionak eman ondotik, batzordeak irekitzen badiu parte hartuko duela jakinarazi du Oninek eta horretara animatu ditu herritarrak ere. Talde honen ustez, Udalak ongi funtzionatuko du taldean lan egiten bada, eta horretarako borondatea izatea aski da.

Zortzi urte hauetako esperientzia gogorra bezain aberasgarria eta esker onekoa izan dela aipatu du Oninek eta oroitzapen berezia izan du Fermin eta Koterekin.



ARGAZKI: AITOR AROTZENA

Bikain La Miguel Indurain proban

Hainbat izan ziren Berako proban parte hartu zuten herriko txirrindulariak, baina azgazkian ageri diren biak aipatzekoak. Ibilbide luzea egin zuten 751 txirrindularien artean 12. izan zen Bixente Igartzabal eta 19. Luciano Mitxelena. Azken hau, 55 eta 64 urte artekoen kategorian erraz nagusitu zen, Quebrantahuesos famatuan egin zuen bezalaxe.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Euskara Batzordeak ekitaldi ederra burutu du San Juan bezperan euskara erabiltzen duten denda eta ostatuak eskertuz

Azkeneko urteetako ohiturari eutsiz, San Juan bezperan ekitaldi berezia burutu du Euskara Batzordeak. Aurten, *Lesakan erosketak euskaraz* izenburupean zorionak eta mila esker eman nahi izan dizkiete euskararekin konpromisoa hartu duten denda, zerbitzu eta ostatuei. Arretxea eta Ote karriketan etxeen izenekin errotuluak paratu zituzten, akordeolari eta txistulari taldeen laguntzarekin. Gero, komentuan jaialdi berezia izan zen. Bertso eskolako neska gazteek antzezlan eskaini zuten bertsotan, abesbatzak ere bizpahiru kantu eskaini zituen, akordeoilari taldeak bezala eta musika bandak txaranga lana bete zuen. San Juan suak ere piztu ziren eta hantxe ibili ziren saltoka neska-mutikoak. Ezpatadantzariak ere, Sanferminetarako entsaioa egin zuten.

XATURETXEA
ZABAI
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
Entregia - Aviala
Barrutia, 31 Lesaka
Tel: 948 637 127

BOZZ-AID
LAVANDERIA
Barrutia - 31 - 948 637 - LESAKA

APITTU
ALUMINIO LANAK
Aluminiozko Lehoak, Kontzertuak,
Ateak, Porteko Itxidurak eta barandak
T./F. 948 638 297 | M. 626 312 326
Otsango auzoa - 12. pabiloia | 31770 Lesaka



ARGAZKIA: IZARO IRIBARREN

Herritarrek su gainean saltoka ibili ziren ekainaren 23an.

OSPAKIZUNAK → ALTXATAK ANTOLATUTA

Sanjuan bezperako ekitaldia arrakastatsua izan da aurten ere

100 lagun inguru bildu ziren frontoian afaltzera

Irune eta Itsaso

Ekainaren 23ko ilunabarrean, Sanjuan sua egin zen plazan. Sua piztu aitzinetik, ehun la-

gun inguru frontoian bildu ziren, etxetik eraman-dakoarekin berendafaria egitera. Ondotik, ohitura den bezala, hurbildu ziren haurrek herriari itzulia eman zioten joareak joz. Iluntzean sua piztu zuten eta nahi zuenak suaren gainetik salto egiteko aukera izan zuen.



ARGAZKIA: IZASKUN URBIETA

Haurraren eguna

Ikasturte akabera dela eta, urtero bezala, haurraren eguna ospatu zen ekainaren 19an. Goizean eskolako haurrek euren eskulanak eta ipuinak jarri zituzten ikusgai frontoian. Meza ondotik, ipuin batzuk irakurri zituzten haurrek eta liburu bana oparitu zieten irakasleek haur guztiei. Eguerdian bazkaria izan zuten frontoian; denetara 68 haur eta 42 guraso bildu ziren. Arratsaldean *Musika Tresnen Fabrika* ikuskizuna izan zen eta eguna giro ederrean bukatu zuten.



ARGAZKIA: NAHIA IRIGOIEN

Igerilekuak zabalik

Eguraldi hagitz ederrarekin ireki zituzten igerilekuak ekainaren 25ean. Aurtengoan Oihan Iparragirre izanen da soroslea eta ostatuko lanetan Nahia Irigoien ariko da.

IMANOL ITURRIA ZURGINA
 Enpresa eta partikular
 T. 661 577 137
 E-posta: imainuria@hotmail.com
 Eskatu asurrekontua konpromisorik gabe

sarabe
 geotekia olinologia
 17 de Arcelegara 25 baxo 1948 63 08 99
 48700 Berri (Navarra) www.sarabe.net

ikusi-makusi
 Opariak - Osasunariak - Jostailuak
 Haur, gazte eta helduentzat

POZA, OFARIAK, EMOZIOA, SENTIMENDUA, ORIGINALA, HAURRAK, SENTIBILITATEA, JOLASTEN, SENTIMENDUA, SENTIMENDUA, SENTIMENDUA

ikusi-makusi
 Colon pasealekua
 Edera eraikina

Uztailaren 15etik aurrera Irunen, denda berria irekitzen dugu

ARANTZA

UDALA → LAN BANAKETA

Imanol Guridi izendatu dute alkateorde

Udal plenoak hilabeteko lehendabiziko ortziraletan eginen dira

Nerea ALTZURI

Ekainaren 11n, alkateta eta zinegotziek karguak hartuz geroztik, pixkanaka udal barruko zereginetan ari dira hautesiak. Arduren banaketen berri hurrengo alean emanen dugu, joan den ortziralean biltzekoak baitziren zenbait zehaztasun eta aldaketa egiteko. Bitartean, zerrendan bigarren doan Imanol Guridi alkateorde izendatu dute.

Udalbatzarrak hilabeteko lehendabiziko ortziraletan eginen dituzte, 19:00etan.

Bestak prestatzen

Gero eta hurbilago ditugu bestak eta horretan ari dira Udala eta Besta Batzordea. Abuztuaren 14tik 17ra iraganen ba-

dira ere, abuztuaren 13an Gazte Asanbladak antolatuta, beroketa ekitaldiak izanen dira.

ARANTZA ROCK 2011

Azken urteetan beza-la, bestak akautu eta hurrengo asteburuan, abuztuaren 20an, Arantza Rock jaialdia izanen da Gazte Asanbladak antolatuta. Bertzeak bertze, kontzertuak izanen dira arratsean, Sutan, Itziarren Semeak, Laket eta Zea Mays-en eskutik.

Eskolan obrak

Eskolan zenbait obra egiteko dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak. Eginen diren lanak energiaren eraginkortasuna hobetzeko izanen dira eta 55.605,33 euroko aurrekonturako, 36.143,46 euro hartuko dira. Biomasa galdara instalatu eta kanpoko egurrak ordezkatzeko izanen dira laguntza. Hilaren 31rako hasita egon beharko dira eta azaroaren 1erako bukatuak.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Frantzia aldean oporretan

Ekainaren 13tik 20ra Frantzialdean oporraldian honako talde hau ibili zen. Arrontongi pasatu omen dute.



ARGAZKIA: ITZIAR MITXELENA

Sanjuan bezperako afaria

Sanjuan bezperan, su gainean salto egiteko aitzakiarekin, herritar kuadrilla elkartu zen Martixenean afaltzeko. Tripa bete eta gero, saltoka aritu zen jendea.



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

Apezteatarrak La Miguel Indurain bizikleta proban

Erran beharrik ez dago, Apeztexea anaien afizio handia dutela bizikletarako. Eta ekainaren 25ean egin zen Berako La Miguel Indurain proban ere ederki moldatu ziren. 113 kilometroko ibilbidea elkarrekin egin zuten Asierrek eta Iñigok, 2 ordu, 59 minutu eta 40 segundoz. Iñigo 24 urtez azpikoen kategorian irabazle izan zen.



Berean etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

KIROLA → BILTOKI ELKARTEAK ANTOLATUTA

Uztailaren 23an egingen da Xabi Telletxea BTT jaitsiera

Euskadiko Openerako puntuagarria izanen da

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, uztailaren 23an, larunbatarekin egingen da Biltoki elkarteak antolatutako Mendi Bizikleta Jautsiera, aurten Xabi Telletxea zenaren izena hartuko duena. Gainera, Euskadiko Openerako saio puntuagarria izanen da.

Goizean izen-emateak eta entrenamenduak egingen dira. 08:30etik 12:00etara izanen da horretarako aukera. Parte hartzeko 15 euro ordaindu beharko dira eta dortsalarekin 20 euro. Arratsaldean hasiko da proba. 15:00etatik aitzinera

bi txanda izanen dira. Ibilbidea urterokoa izanen da: Fraingo antenatik abiatu eta herrira jeitsi ur depositu zaharrean barna. Horrez gain, 12:30ean Xabi Telletxea zenari omenaldia eskainiko zaio Frainen.

Eskolari subentzioa

Eskolako energiaren eraginkortasuna hobetzeko 8.410,23 euroko dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Departamentuak. Eraikinaren kanpoko egurrak aldatzeko izanen da eta lan guztiaren aurrekontua 12.938,81 eurokoa izanen da. %65 subentzionatzea ebatzi du Gobernuak.

Lanak uztailaren 31rako hasiak egon beharko dute eta azaroaren 1erako amaituak.



Xabi Aranguren La Miguel Indurain proban nagusi

Ez zen La Miguel Indurain proban parte hartu zuen herritar bakarra izan, baina bai hobekien moldatu zena. 186 kilometroko ibilbide luzea aukeratu zuen Xabi Arangurenek eta guztien artean bera nagusitu zen. Ibilbide luzea aukeratu zuten bertze bi herritarrek Mikel Arburua eta Mikel Urtxegi izan ziren. 113 kilometroko ibilbide laburra egitera animatu zirenak, berriz, gehiago izan ziren. Hurrenkera honetan helmugaratu ziren: Aitor Almandoz, Imanol Retegi, Aitor Begino, Jose M^a Goia, Angel Urtxegi, Igor Antxordoki, Iñaki Hita, Josetxo Arburua, Jose Luis eta Txomin Sirera, Julen Txopereña eta Felipe Lizardi.

LEKUZ ALDATZEN GARA. LIKIDAZIOA

LASTER BIDASOA KARRIKA, 12AN, RURAL KUTXA ONDOAN IZANGO GARA



Eztegara 12, BERA
Tel: 948 631 425

* ARROPA ZURIAN EZ DA BEHERAPENIK!

UNO de 50
-150 arteko beherapena

HAURREN ARROPA
BAT -120
BI -130

PUNTUZKO JERTSE ETA TXAKETAK
-130 -140

GALTZAK
BAT -120
BI -140

SOINEKO ETA GONAK
-130 -140

ZILARREZKO ESKUMUTURREKO ERAZTUN ETA LEPOKOAK
BAT -120
BI -140

BISUTERIAZKO BELARRITAKOAK
2X1
BI ERAMAN ETA BAT ORDAINDU

KAMISETAK
BAT -120
BI -140

Dippner
OINETAKOAK
Neurri solteak
-150 arteko beherapena

LEPOKO ZAPIAK
BAT -120
BI -140

POLTSAK
-130

SUNBILLA

KIROLA → ATLETISMOA

Espainiako txapelketan urrezko domina eskuratu du Ane Petrirenak

300 metroko lasterketan lortu du garaipena

Maider PETRIRENA

Kadete mailako Espainiako Atletismo Txapelketa ekainaren 11 eta 12ko asteburuan jokatu zen Valladoliden eta Nafarroako ordezkariak hiru domina lortu zituen, bat brontzezkoa eta bi urrezkoak.

Urrezkoetako bat Ane Petrirena 14 urteko herritarrak eskuratu zuen, 300 metroko lasterketan. Horrez gain, 40:82ko denborarekin, 1989an egindako marka hobetzea lortu zuen. Beraz, 22 urteren ondotik, Arantxa Reinaresen zeukan marka gaintzea lortu du Ane Petrirenak, kategoria honetan lehiatu duen lehenbiziko urtean.

Lerro hauen bidez, zorionak eman nahi dizkiogu Aneri!

Antzerkia

Antzerki taldeak bere saioa eskaini zuen ekainaren 24an. Baina ez aurrekoan jarri bezala Doneztebeko zinemari, baizik eta Donamariako Jaregian. Hagitza polita izan zen, eta beraz, zorionak Susana irakasleari eta partaide guztiei.

Ludoteka

Uztailaren 1az geroztik, zabalik dago ludoteka zerbitzua.

Ikasturtea akitu dute eskolan

Ikasturteari amaiera emateko, goiz polita antolatu zuten ekainaren 21ean Goiko Eskolan, dantzaz eta musikaz alaitua. Ondotik, hamai-ketakoa izan zen.



ARGAZKIA: BIDAD IBARRA

Maritxu, Frantxiska eta Francisca omenduak

Ekainaren 28an Arkupeak elkarteak urteko besta haundia egin zuen eta 85 urte bete dituzten hiru sunbeldar izan ziren omenduak: Maritxu Zubieta, Frantxiska Iriarte –argazkian– eta Francisca Agesta.



Gazte Egunean haurrak ere protagonista

Aurtengoan Sunbillan ospatu zen Malerrekako Gazte Eguna. Egitarauaren barne, haurren jokoak egin ziren eta hagitza ongi pasatu zuten neska-mutikoei.



ARGAZKIA: BIDAD IBARRA

Mendaurko eguna eguraldi ederrarekin

Eguraldi bikainarekin, jende andana bildu zen ekainaren 19an Mendaurren.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Bestaberri Eguna

Bestaberri Eguna ekainaren 26an ospatu zen. Egun honekin herria dotore jantzen da belar eta loreekin, eta aldare bat ere paratzen da Karrika Nagusiko Ibarra etxean. Hala izan da aurten ere eta horrez gain, meztatik ateratzerakoan bandera dantzatu eta prozesioa egin zen abesbatza eta txistulariekin. Akitzerakoan, berriro dantzatu zuen bandera Mario Mitxelenak.



ARGAZKIA: NIEBES BIURRARENA

Sanjuan bezperan su gainean saltoka

Ekainaren 23an, urtero bezala, suak egin ziren, baina aurten frontoi atzelaldean.

AISIALDIA → HAUR ETA GAZTEEI ZUZENDUA

Udako Kirol Eskola antolatu du Erreka Elkarteak aurten hamaikagarren aldiz

Ortziral honetan egin beharko da izen ematea frontoian

TTIPI-TTAPA

Eskolako oporrak hartu orduko, aisialdirako eskaintza ederra egin die aurten ere Erreka Elkarteak herriko eta inguruko haur eta gaztetxoei. Udalaren laguntzarekin, Udako Kirol Eskola antolatu du hamaikagarren aldiz, uda hainbat kirol eginez pasatzeko.

Uztailaren 11n hasita, abuztuaren 5era bitarte iraunen du Kirol Eskolak eta astelehen, asteazken eta ortziraleko eginen dira saioak. Eskolako frontoian eta kiroldegian izanen dira, 11:00etatik 12:00etara talde bat eta 12:00etatik 13:00etara bertzea.

Izen-ematea ortziral honetan, uztailak 8, egin beharko da, 11:00etan frontoian. Erreka Elkarteako bazkideek 33 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, 36 euro.

Azken orduko aldatarik ez bada, Ainara Marizkurrena izanen da begiralea. Eta bertzeala Ibai Marizkurrena.

Dirulaguntza instituturako

Mendaur institutuan energiaren eraginkortasuna hobetzeko, 32.000 euroko dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak. Aurrekontuaren %100 lagunduko du Gobernuak, eta eraikinaren kanpoko egurrak ordezkatzeko erabiliko da. Lanak uztailaren 31rako hasiak egon beharko dute eta azaroaren 1erako akituak.

14 herritar La Indurain proban

Doneztebeko 14 lagunek egin zuten ekainaren 25ean Berako La Miguel Indurain bizikleta lasterketa. Horietatik hiruk aukeratu zuten 186 kilometroko ibilbide luzea: Gorka Bidegain, Ignacio Zarranz eta Juan Karlos Arregik, hain zuzen. Gainerakoek 113 kilometroko ibilbide laburragoa egin zuten: Josu Juanena, Xabier Bañares, Humberto de Rueda, Jokin Apeztexea, Juan Mari Apeztegia, Patxiku Irigoien, Iñigo Mangado, F. Moreno-Torroba, Jose Luis Arozena, Jabier Juanotena eta Miren Mangadok.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Akitu dira sanpedroak

Haur, gazte nahiz helduek ederki pasatzeko aukera izan dute bestetan.



ARGAZKIAK: ERREKA

Egun handia ospatu du Erreka Elkarteak

Denboraldia agurtzeko egun handia ospatu zuen Erreka Kirol Elkarteak ekainaren 18an. Bezperan ere izan ziren zenbait ekitaldi, elkarteko bartz kidek Ekuadorko Andeetara egindako mendiko espedizioari buruzko proiektzioa eta mus txapelketa, erraterako. Mus txapelketan 30 bikote aritu ziren eta Jon Apeztegiak eta Aritz Baleztenak eskuratu zituzten bi urdaiazpikoak, finalean Leire Amoros eta Lander Erkizari irabazita. Baina egun handia larunbata izan zen. Goizez, kategoria ttiketako neska-mutikoak aritu ziren eskubaloian eta judo eskolakoek ere erakustaldia eskaini zuten. Arratsaldean, eskubaloiak segitu zuen eta ikusmin handiko partidekin gainera. Lehenik, mutiko kadeteak aritu ziren eta gero, Erreka B taldea, garai bateko jokalariek osatutako Izarren ekipoaren kontra aritu zen. Etxekoek 29-44 galdu zuten. Dantza taldeak ere eskaini zuen bere emanaldia eta arratsean bestak segitu zuen Santa Luzia plazan, afariarekin eta Jalisko Band taldearekin izandako gaupasarekin. Afalondoan, Errekaren himnoa sortu zutenei, Joxe, Ainhoa, Cecilia, Mariñe, Zunzarren eta Mikel Rekarteri omenaldia eskaini zitzaizen. Aipatu, bertetik, Errekako Jabier Apeztegia eta Iñigo Oskoz Euskadiko txapelkun izan direla Nafarroako eskubaloia selekzioarekin kadete mutiletan. Jubenil nesketan, aldiz, Ana Mindegia doneztebarra ere Euskadiko txapelkun izan da.



ITUREN

HERRI KIROLAK → INGUDEA, TXINGA ETA AIZKORA

Hiru herritar sanferminetan eginen diren herri kirol txapelketa eta erakustaldietan

Aioroa ingudearekin ariko da, Erasun aizkoran eta Ariztegi aizkoran eta txingekin

Arkaitz MINDEGIA

Ituren eta Aurtizko ordezkariak aurten ere ez du hutsik eginen Iruñeko sanferminetan jokatuko diren herri kirol txapelketa eta erakustaldietan.

Joakin Aioroak, erraterako, Nafarroako Ingu- de Altxatze txapelketan parte hartuko du uzta- laren 14an. Joan den ur- tean lortutako Nafarroa- ko txapela aurten erre- pikatzen ahaleginguduko da Aioroa.

Baina horren aitzine- tik, Ander Erasun eta Maika Ariztegi aizkoran ariko dira. Uztailean 11n

eginen den erakustaldi- an Ariztegik parte har- tuko du. Emakumezko- en Txinga Txapelketan ere ariko da egun bere- an.

Biharamunean, Era- sun ariko da aizkoran, erakustaldia eskainiz.

Saioak 12:00etan ha- siko dira Foru Plazan.

Eskola ttikietan hezkuntza duina eskatuz

Eskola ttikietan hez- kuntza duina! Horixe es- katuz boletok paratu ditu salgai Eskolako Gu- raso Elkartek. Bi sari zozketatuko dituzte, le- henbizikoa bi lagunend- ako afaria Altxunea er- retegiaren eta bigarre- na xaboi naturalez osa- tutako saskia. Zozketa Zubietako bestetan egi- nen da eta hilabete bate- ko epea izanen da sa- ria jasotzeko.



ARGAZKIA: ANA ALTZURI

Sanjuan bezpera su ganean saltoka

Su ganean saltoak eginez joan zen Sanjuan bezpera, bai Iturenen eta bai Aurtitzen ere. Haur, gazte eta heldu aritu ziren saltoka. Horrez gain, ekainaren 25ean, Sanjuan gaueko afaria egin zen Aurtitzen eta 56 lagun bildu ziren elkartearen. Oihana Elizalde eta Oihana Mindegiaren musika doinuek alaitu zuten afal ondo.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Giro ederra Trinitate Egunean

Eguraldi ederrarekin eta umore hobean joan zen Trinitate Eguna. Mendi kaxko- ra bisita egin ondotik, enbaltseetan bazkariak egin ziren. Aurtiztarrak 20 bildu ziren eta iturendarrak 70. Eguraldi onaren ondorioz, luzatu egin zen besta eta 20:30-21:00 baziren jendea herrira jeisterako. Aurtitzen trago batzuk hartu ondotik, zortziko doinuak sartu ziren Iturengo plazara aurtiztarrak eta iturendarrak.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

Lentana
Banquetak
Mertzenak
Jantz ospakizunak
Purten Masak

Kaitz Gorria

Beneke plaza 10 31770 Lezoa
T. 948 627 514

Alberto RETEGI

abokatuak
abokatuak

© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA

Andregaiaren erramua +
elizako loreak +
detalleak eginez gero
KOTXEKO LOREAK OPARI

ESTHER

NARBARTE
T. 948 59 22 00

Martxoaren 31rako detailak, Martxoak elizara eta karguak hartuaren eramaneraino ditugu. Karguak eta berriak lantzen, zuzaltzek, patata salgai, berriak lantzen aukera zabala.

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → BESTABERRI EGUNEAN

Lurdes Elizalde irabazi du aurten bigarren aldiz egin den gazta lehiaketa

Zortzi gaztaren artean, Elizagainea nagusitu da

Fermin ETXEKOLONEA

Leihoetan oihalak, bidean belarrak... Horrela esnatu zen herria Bestaberrri egunean. Herritarrek ederki apaindu zituzten bazterrak prozesioa egiteko eta parte hartze- ra animatu zen jendea. Urteetan galdua izan den eta aurten berreskuratu den ohiturak erantzun ona izan zuen.

Zortzi gazta aurkeztu ziren Udalak Bestaberrri egun arratsalderako antolatatu zuen gazta lehiaketara eta horien artean, Elizagainea Lurdes Elizalderena izan zen aukeratu. Bi lagunendako afaria eraman zuen sari gisa. Bigarren sailkatua, berriz, Xapakobordako Engraxi Urriza izan zen eta bi botil ardo jaso zituen.

Parte hartu zuten zortziak hauek izan ziren: Azkuntzulutako baseria, Parazelaitako baseria, Olasenero borda, Iriartero borda, Seroko borda, Xapakoborda, Elizagaina eta Martuzenea. Lerro hauen bidez, Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie parte hartzeagatik.

Aurkeztutako gaztak ondotik egin zen berendurako aprobetxatu ziren eta honetan ere, herritarrek ongi erantzun zuten. Ilunabarrean, musika izan zen Aierrik taldearekin plazan.

Txirindulariak

Ekainaren 25ean egin zen Beran, Miguel Indurainen omenez egiten den bizikleta proba eta bi herritarrek hartu zuten parte. 186 kilometroko ibilbide luzea Igor Babazek egin zuen eta 113 kilometroko ibilbide laburra Joseba Juanikorenak. Jakin dugunez, Bardeetan ere ibiliak dira bizikleta probaren batean.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Ezkerrean prozesioa eta eskuinean, Udalak herritarrei emandako berendua eta dantzaldia.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Pijama festa Gaztegunean

Festa berezia egin zuten ekainaren 24an neska-mutikoez Gaztegunean: pijama festa. Gazteguneko denboraldia akitzeaz zegoelako antolatatu zen, eta elkarrekin afaldu ondotik, Maria, Txas eta Anuskarekin 24 gaztetxok hantxe egin zuten lo. Biharamunean ere denek batera gosaldu zuten. Horrekin lotuta, uztailaren 3an ikasturteko azken ekitaldia egitekoak ziren, berendu-afaria, alegia.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Giro ederra Sanjuan bezperan

Hasieran euriaren beldurra izan arren, azkenean ez zen halakorik pasatu eta giro onean joan zen Sanjuan bezpera. Etxetik bakoitzak eramandakoarekin berendu-afaria egin zen ilunabarrean eta 50-60 bat lagun elkartu ziren plazan. Trikitixa soinuak ere ez ziren falta izan. 23:00etatik aurrera su gainean saltoka aritu zen jendea eta 00:00etan ezkil jotzea egin zen. Egun polita atera zen.

Martiko
Poi Zaien, s/n.
31790 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625018 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Asustatuak ezinak eta onak!

MARTIKO

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

DENDA
ORDUTEGIA
ASTELEHENETIK
ORTZIRALEA
08:00etatik
17:00etara

ELGORRIAGA

SANTIAGOAK → UZTAILAREN 22TIK 25ERA

Herri lasterketa egingen da Santiago Egun arratsaldean

Txupinazoaren aitzinetik haurrendako jokoak izanen dira ortziralarekin

ORTZIRALA 22

16:30ean haurrendako jokoak. **20:00etan** bes-tei hasiera emateko txupinazoa. **21:00etan** zopak. **23:00etan** dantzaldia BIXENTE akordeoi-lariarekin.

LARUNBATA 23

10:00etan diana. **10:00etatik 14:00eta-**ra puzgarriak. **16:30ean**



ARGAZKIAK: ARANTXA ARREGI

Aitzineko bestetan bezala, aurten ere ongi pasatzeko aukera ederra izanen dute haurrek.

mus txapelketa. 17:00-etan magia ikuskizuna

plazan. **21:00etan** me-
rendua. **Arratsaldez eta**

gauzez dantzaldia AIE-
RRIK taldearekin.

IGANDEA 24

10:00etan diana. **12:00etan** toka txapelketa. **14:00etan** zikiro jatea, BIXENTE akordeoilariak alaituta. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia AIERRIK taldearekin.

ASTELEHENA 25 Santiago Eguna

10:00etan diana. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** dantzari ttikien emanaldia. **12:30ean** luntxa. **17:00etan** herri lasterketa. **21:00etan** patata tortilla lehiaketa. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin. Besten bukaera.

F. LANCHAS
Akutxaladorea eta bermizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

BIDASOA
TULAKAR - PERTSIANAK
KOTXEGAR - AUTOMATIZAKAR
MOBILITATERAK - KENPONKETA
T./F: 659 971 442
BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tel: 943 547 474

Behetik
Eskalerak igotzea... ez da orfopol
plataformak
igogailu bereziak
auki bereziak...

Aforgo-baki. 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

José I. Gonzalez Enguita
Dantzariak
berrakok eta futbadak
tel. 666 235 466

MIGUEL ETXEBERRIA
zurgindegia
zurgin lanak orokorrean
Ongi pasa bestaki!
Tel. 948 450 310 • Mugikorra: 608 677 997
ELGORRIAGA

Udako merkealdia koltxoietan

%25_{eko} deskontuak

confortplus koltxoia



+ oinarri tapizatua edo Apolo somierra



	90	105	135	150
190 /	297€	332€	411€	452€

Azal transparentea kargurik gabe Harkak prezioan sartu gabe

+ ordesa kanapea (EGURRA)



	90	105	135	150
190 /	570€	615€	716€	768€

Azal transparentea kargurik gabe

+ urban kanapea (EGURRA)



	90	105	135	150
190 /	482€	527€	635€	684€

Azal transparentea kargurik gabe

+ master kanapea (POLIPIEL)



	90	105	135	135 partidu	150
190 /	646€	700€	825€	859€	912€

Azal transparentea kargurik gabe

koltxoia + viscodream



viscolastica termosenitkorra



	90	105	135	150
190 /	161€	183€	229€	253€

omega koltxoia

+ oinarri tapizatua edo Apolo somierra




OPABIA
Miracle outakes

hankak barne

	90	105	135	150
190 /	235€	274€	319€	348€

Muebles 
Telletxea

Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE
T. 948 450 258 • 948 451 811
info@mueblestelletxea.com
www.mueblestelletxea.com

EZKURRA

ATZERA BEGIRA → UDAL ARTXIBOKO BITXIKERIAK

Ezkurra, Eratsun eta Saldiasko udalak elkartzeko saiakerak egin zituen 1939an gobernadoreak

Herritarren erantzuna ezezko garbia izan zen

Fernando ETXEBERRIA

Kontu asko dago udal artxiboan, baina dudarik gabe, arreta gehien pizten duena hauxe da: bortxaketa eta hilketa leporatuta 1887an herritar bati biziarteko kartzela-zigorra ezarri zioten. 17 urtez Ceuta eta Puerto de Santa Mariako kartzelatan egondu zen, baina portaera ona izan zuelako, indultatu eta etxera itzuli zen 1904an.

Urte batzuk beranduago, Udalak epailea kargutik kendu zuen herritar bakar batek ere ez zekielako gaztelaniaz eta badirudi gaztelania zela berak zekien hizkuntza bakarra. Aldi berean, Angel Bezunze behin behineneko idazkari izendatu zuen euskaraz eta organoa jotzen jakiteagatik. Irakasle bat ere baldintzak betetzen zituelako aukeratu izan zen. Aipatzekoa da, hauen betebeharrak bat elizako ospakizun erlijiosoetan harmonium jotzea zela.

1927an alkateak aguzilari nolabaiteko kategorian eman nahi izan zion eta horregatik, txa-

pa eder bat eman zion ekitaldi ofizial guztietan janzteko.

Antza, 1934an, animalia prostituzioa zegoen eta horren harira hainbat herritarren kexuei erantzunez, Udalak abandonatutako etazikerratu gabeko aharien eta ardien arteko nahasketa debekatu zuen estaltzeko garai ona ez zenean.

Hala ere, Ezkurrako herritarrek gehien sutu zituen kontua 1939an gertatu zen, gobernadore zibilak Ezkurra, Eratsun eta Saldiasko udalak elkartu eta bakar batean bilakatu nahi izan zituenean, hiriburu bezala Eratsun proposatuz. Funtzionamendu gastuak murriztu nahi izan zituen. Erantzuna berehalakoa izan zen. Ezkurrako herriak bere aldetik funtzionatzeko nahiko azpiegitura eta baliabide ekonomiko zituela esan zuen Ezkurrako jendeak; beste bi herriek baino biztanle gehiago zituen, idazkari bat ere bazuen, bi irakasle eta Eratsungo herritarrek hartzen zituen mediku bat ere bai. Hurrengo urtean berriz saiatu zen, baina ezezko garbia ikusita bertan behera utzi zituen ahaileginak.

Bestalde, makien garaian, konpainia edo ba-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Lehenengo landetxearen inaugurazioa

Ezkurrako lehenengo landetxea izanen denaren obrak nahiko aurreratuak daude, eta jabeak uztail hondarrean irekitzeko asmoa du. Inguru ederrean eta edozein hostalek eskaintzen dituen erosotasun guztiekin, egun batzuk pasatzeko baldintza guztiak betetzen ditu.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Iritsi da uda

Udan sartu gara eta horren lekuko da Barranka ostatuko baratze eder hau. Hainbat barazki lantzen ari dira.

tailoi militar bat Ezkurrara etorri zen makiei aurre egiteko. 1944 eta 1945 urteetan sei hilabetez hiru etxetan bizitu ziren. Horrela ondoriozta daite-

ke, Udalak buruzagien aurrean egindako protesta batetik. Izan ere, herri lurretatik 24 tona egur hartu zituzten 1944ko azaro eta abendutik

1945eko urtarrilera arte eta ordaindu gabe. 1.400 pezeta zor bazituzten ere, kopurua jeitsi egin zuten armadak etxeetan berri-tze lanak egin zituelako.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☛ Langile autonomoak ☛ Nekazariek eta mendi langileak ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak ☛ Lan-Kontrabularako laguntzak ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☛ Diru-laguntza ezberdinak ☛ Kontabilitateak ☛ IVA eta IRPF ☛ Errenta aitortpenak ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURELATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

GIZARTEA → DONEZTEBEKO BESTEN ATARIAN

Giro ederrean ospatu du Arkupeak elkarteak bere 25. urteurrena

Urrezko Ezteiak egin dituzten senar-emazteak eta ohorezko bazkideez gain, kirolari handiak omendu dituzte

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 28an ospatu zuten Arkupeak Elkarteak kideek 25. urteurrenako besta handia Donezteben. 1986an lau lagunek sortu zuten Arkupeak elkarte Donazteben eta 25 urte pasata, Nafarroako mendialdeko eta Gipuzkoako Bidasoaldeko 45 herrietako 3.000 bazkide baino gehiago ditu. Felipe Ganboa izan da 25 urteetan lehendakari, eta azken ospakizunean kargua utzi eta bere lekua Pedro Bañaresek hartu zuen. Halere, erne zegoen Ganboa eta oroitzen berezia izan zuen Joakin Goikoetxea, ospitalean zegoen Berako delegatuarekin.

Goizean meza izan zuten San Pedro parrokian. Meza ondotik aurtan Urrezko Ezteiak egin dituzten senar-emazteak eta 85 urte bete edo beteko dituzten ohorezko bazkideak omenatu zituzten.

URREZKO EZTEIAK ETA OHOREZKO BAZKIDEAK

Urrezko Ezteiak bete dituzten senar-emazteak hauek dira: Jose Saizar eta Teresa Telletxea (Areso); Agustin Dagerre eta Asuncion Otxoteko (Bera); Jose



DATUA

6

BIKOTE

dira aurtan Urrezko Ezteiak egin dituzten Arkupeak-eko kideak.

DATUA

26

LAGUN

dira aurtan 85 urte bete edo beteko dituzten Arkupeak-eko kideak.

Arrieta eta M^a Jesus Pueyo (Elgorriaga); Juan Marisko eta M^a Karmen Etxebertz (Erratzu); Jaime Lopez eta Luisa Arenaz (Irun) eta Juan Irazoki eta Mercedes Arburua (Zugarra-murdi). Denek bere oroigarria jaso zuten eta argazkiak atera zituzten senideekin.

Ohorezko bazkide izendatu zituztenak hau-



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA/ONDIKOL

Aurtan omenaldia jaso duten bazkideak –goiko argazkian– eta kirolariak –behekoan–.

ek izan ziren: Amairuko Bernardo Rekalde, Arantzako Inaxi Iparragirre eta Felix Jorajuria, Arraiozko Mercedes Juanikotena, Berako Miguel Artieda, Matias Irazoki, Maritxu Martikorena, Felisa Maia, Damaso Rozas eta Lino Telletxea, Elizondoko Miguel Nuñez, Eratsungo Mikaela Barberia, Etxalarko Martin Indaburu, Igantziko Miguel Dorronsoro, Irungo Martin Andueza, Leitzako Bernardino Aierdi, Joakina Azpiroz, Hilaria Etxeberria, Demetrio Salbarredi eta Katalina

Villabona, Lesakako Mercedes Zabaloazola, Oizko Juana Anso, Sunbillako Francisca Agesta, Francisca Iriarte eta Maria Zubietta eta Urdazubiko Isabel Jaimerena. Hauek ere oroigarriak jaso eta argazkiak atera zituzten.

KIROLARI HANDIEI OMENALDIA

Luntxaren ondotik kirolerakustaldia egin zen eta aizkolariek eta harri-jasotzaileek, tartean Iñaki Perurenak, lan ederra egin zuten. Kirolari beteranoei omenaldia egin zieten gero: Juan

Inazio Retegi, Julian Retegi eta Elias Pierola pilotariei eta Mikel Midegria aizkolaritari. Oroigarriak jaso ondotik, beraien emazteekin eta Arkupeak elkarteko ordezkariarekin argazkiak atera zituzten. Ondotik kiroldegian bazkaria egin zuten eta Jalisko Band taldearekin euskal abestien kantaldia eta dantzaldia ere izan zuten.

Ospakizun eguna borobiltzeko, bertze besta bati hasiera eman zioten erretiratuek. Izan ere, Felipe Ganboak Doneztebeko besten txupinazoa bota zuen.

GOIZUETA

ASIALDIA → GURASO ELKARTEAK ANTOLATUTA

Hainbat ikastaro izanen dira uztailean neska-mutikoentzat

Igeriketan izan da izen-ematerik altuena

TTIPI-TTAPA

Eskolako oporrak hartuak dituzten arren, neska-mutikoek ez dute aspertzeko astirik izanen uda honetan ere. Izan ere, Guraso Elkarteak, beste urte batez, udako ikastaroak antolatu ditu. Uztailean 1ean hasi ziren eta hilaren 29ra arte iraunen dute. Egun horretan, eta ohiturari segituz, ikastaroetan parte hartu duten guztiek bazkaria eginen dute gurasoekin batera, Iskibi kanpinean.

Informatika ikastarotan, esate baterako, 15 gaztetxo apuntatu dira eta saioak astelehen eta astezkenetan izanen dira Xalto eskolan. Bi taldetan banatuak ariko dira, 10:00etatik 11:30era batzuk eta 11:30etik 13:00etara besteak.

Marrazketa egiteko 17 hurrek eman dute izena. Astearte eta ostegunetan eginen da ikastaroa Guraso Elkartearen egoitzan. Bi taldetan banatuko dira: lehenengo taldea 11:00etatik 12:00etara ariko da eta bigarrena 12:00etatik 13:00etara.

Eskulanetan izan da izen-emate kopururik baxuena: 8 gaztetxo astearte eta ostegunetan elkartuko dira 13:00etatik 14:00etara, Guraso Elkartearen lokalean.

Igeriketa ikastarorako, berriz, 27 neska-mutikok eman dute izena. Uztaileko hilabete osoan, egunero eta goizez, Hernaniko kiroldegira joanen dira ikastaroa egitera.

Gazte Asanbladaren bloga

Gazte Asanbladak beste urrats bat eman du Interneten eta bere berriak zintzilikatzeko www.ttirrikittarraka.tk bloga sortu du.



ARGAZKIAK: MIREN ALDUNTZIN

Herriko artisten lanak

Ikasturtean egindako eskulanak ikusgai izan dira berriki eta aurtan ere lan politak egin dituztela ikusi da.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Urteak dira haurrak Hernanira joaten direla igeriketa ikastaroa egitera. Argazkia 2009koa da.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Sanjuan suarekin saltoka

Ohiturari segituz, haur, gazte eta heldu, Sanjuan bezperan su gainean ibili ziren.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Etorkizuneko promesak

Goizuetak etorkizuna ziurtatua du pilotan, azken aldian herriko gaztetxoek lortu dituzten garaipenek hala baieztatzen dute. Ekainaren 18an, Nafarroako Jolasetako finalak jokatu ziren Iruñeko Labriten eta benjamin 2. mailan, Manex eta Eñaut Apezteak txapela lortu zuten. Biharamunean jokatu zen Lizarrako finala eta hemen ere Manex eta Eñautek irabazi zuten. Egun berean izan zen Oreretako txapelketako finalean Iker Salaberriak garaipena eskuratu zuen, Zubizarreta lagun. Finaleko pilotari hoberenaren saria ere Ikerrentzat izan zen. Josetxo Ezkurra Memorialean, Manex eta Eñautek beste garaipena eskuratu zuten eta Iker Salaberriak beste bat, Zubizarretarekin. Aitor Aizkorbe eta Antton Apezteaxa azpitxapeldun izan ziren.

FESTAK → UZTAILAREN 17AN ETA UZTAILAREN 23TIK 26RA

Pilota partida, herri kirolak eta puntako bertsolariak Santio Egunean

Festak hasi aurretik kotxe zaharren igoera eginen da

IGANDEA 17

Egun guztian kotxe zaharren igoera eta erakusketa.

LARUNBATA 23

12:00etan jaiei hasiera emango dioten itxaferoa botako da udaletxeko balkoitik. 12:00etan feria eta tortilla lehiaketa. 17:00etan Aranoko pala txapelketako finala. 22:00etan XXIX. Mus Txapelketa San Roke Elkartean. 22:00etan Ilargipeko zinema.

IGANDEA 24 Umeen Eguna

Goizean Meza. 12:00etan umeen pilota parti-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jaiei hasiera emateko itxaferoa bota ondoren, tortilla lehiaketa eginen da.

da: Mujika-Apezetxea eta Altsua-Apezetxea. Segidan Goizuetako dantzariak. 15:30ean puzgariak eta ume jolasa. 18:30ean txokolatada. 19:00etan Arno gaudutegiko azientak umeentzat. 21:00etan parrillada herrikoia. 23:00etan err BIDE BATEZ taldearekin. Goizaldean baratxuri zopa.

ASTELEHENA 25 Santio Eguna

Goizean Meza. 12:30ean Arano eta Goizuetaren arteko ohiko pilota partida jokatuko da. Aranotik Huizi eta Lizeaga eta Goizuetatik Apezetxea eta Nartarte ariko dira pilotan. 18:00etan herri kirolak:

Iparaldeko jokoak, aizkolariak Atutxa eta Nazabal eta bost metroko egurrekin Felix Etxeberria. Harriarekin Joxe Ramon Iruretagoiena *Izeta II.a*. 19:30ean bertsolariak: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Unai Agirre. Gaua girotzeko trikita-xa doinuak.

ASTEARTEA 26 San Joakin eta Santa Ana, Jubilatuen Eguna

11:00etan Meza. Ondorian hamaiketako. 13:00etan pilota partidak afizionatuen artean: Lujanbio-Etxegoien eta Urkizu-Murgiondo. 14:00etan jubilatuen bazkaria Imanol Lazkano eta Xabier Legarreta bertsolariarekin. Eta Jexuxen jazbanarekin.

OHARRAK

- Erifetako 2. sariko aforia Benta-Berrin izan beharrean Ugaldetxon izango da.
- Jubilatuentzat: bazkarirako izena Kontseju tabernan eman beharko da. Azken eguna: uztailaren 20a.
- Aranoko Jai Batzordeak eta Udalak ez dituzte bere gain hartuko jaietan gerta litezkeen ezbeharrak.

Aranoko Udalak
jai zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

TTIPI-TTAPA ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanien duzu apiril

proiektu zerbakiak
15.996

TTIPI-TTAPA ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

TTIPI-TTAPA ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

gaztelu sol

iturgintza
kalafakzioa - saneamendua - gasa

Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

LEITZA

KIROLA → SEIGARREN URTEURRENA OSPATZEKO

Abian da Gaztetxeak antolatutako bigarren frontenis txapelketa

Finala hilaren
23an jokatu-
ko da,
urteurreneko
festan

TTIPI-TTAPA

Atekabeltz Gaztetxe-ak seigarren urteurrena ospatuko du aurten, eta horren harira, prestaketetan hasia da burubelarri. Dagoeneko antolatuko duen jardueretako bat, binakako frontenis txapelketa da, aldi honetan bigarren aldiz egingen dena. Aste honetan hasi dira partidak eta uztailaren 15era arte iraunen dute. Final handia, berriz, seigarren urteurreneko festan, uztailaren 23an, jokatu da. Gaztetxetik iragarri dutenez, sariak izanen dira.

Mikel Nieve 2013ra arte Euskaltelen

27 urteko txirindulari gazteak 2013. urtera arte Euskaltel-Euskadi taldean jarraituko du. Antza, Movistar taldetik hiru denboralditarako eskaintza jaso du, baina Mikel Nievek Euskaltelen segitu nahiago izan du. Hala, lehendik 2012 bukaera bitarte zuen kontratua beste urtebez luzatu diote.

2008an egin zuen profesionaletarako saltoa eta urte hauetan bi etapa garrantzitsu irabazi ditu: joan den urteko Espainiako Itzulian lehenengo eta aurtengo Italiako Giroko etaparik menditsuenen bigarrena.

Abuztuaren 20an hasi eta irailaren 11n bukatuko den Espainiako Itzulari begira jarria dago orain Nieve.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sexu Askatasunaren Aldeko Egunak oso harrera ona izan du

Oso erantzun ona izan zuen ekainaren 30ean egin zen Sexu Askatasunaren Aldeko Egunak. Mahai-inguruan EHGAM Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimendua, LUMATZA Nafarroako bollera (soropil) feministak eta Bilgune Feministako lau hizlarien azalpenak entzuzera 40 bat lagun bildu ziren eta pozik gelditu ziren guztiak, bai hizlariak eta bai entzuleak ere. Afarian ere beste horrenbeste lagun elkartu zen. Horrelako zerbait egiten den aurreneko aldia izanda, «oso pozik» gelditu dira antolatzaileak, jendeak oso ongi erantzun duelako. Urtean zehar gauza gehiago egiteko baliteke berriz animatzea Bilgune Feminista eta Sexu Askatasunaren Lagunak.



ARGAZKIA: PABLO FEO

Giro ederra Gorritzaranen

Ekainaren 18an ospatu zen Gorritzarango festa. Goizeko mezaren ondotik, herri kirolak eta joko bereziak izan ziren eta eguerdian bazkaria. Arratsaldean XXIII. mus txapelketa jokatu zen eta musika ere izan zen. Aurten XXII. aldiz jokatu den Txintxurrin txapelketak ere ez zuen hutsik egin.



ARGAZKIA: PABLO FEO

Sanjuan bezpera

Sanjuan bezpera giro ederrean joan zen. Ohiturari segituz, arratsaldean Ingurutxoa dantzatu zuten gazte-
txoenek eta ondotik, opilak banatu ziren. Gauean jende andana elkartu zen plazan afaltzera.

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun

(0034)948 63 54 58

OSPAKIZUNAK → EGUN OSOKO FESTA

Guraso Elkarteak jaigiroan ospatu du 25. urteurrena

Zirko Eskola emanaldian parte hartzeko aukera izan dute

Juana Mari SAIZAR

Guraso elkarteak 25 urte beteko ditu aurten eta mende laurdena behar bezala ospatzeko egun berezia antolatu zuten haur eta gurasoentzako.

Goizean aureskua dantzatu zuten ikasle ohi batek eta guraso batek, eta gero haur jokopak izan ziren. Ondoren, hurbildutako guztiek paella eder batez gozatzeko aukera izan zuten bazkalorduan. Arratsaldean, Zirko Eskola emanaldian parte hartu zuten haur eta gurasoek.

Sanjuan bezpera eta Sanpedroak

Uda behar bezala hasteko, Guraso Elkarteak eta Lagunarteak Sanjuan bezperako eta San Pedro eguneko festak antolatu dituzte aurten ere.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Urrezko Ezteiak

Jose Saizar eta Teresa Telletxeak Arkupeak Elkartearen omenaldia jaso zuten ezkondu zireneko 50. urteurrenean Donezteben.



Egun ederra pasatu zuten haur eta gurasoek.

ARGAZKIAK: J. M. SAIZAR

60 aniversario
Casa Cambra

edredoi fundak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
albornoak
maindireak · mantelak
kuxinak · toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

Udako merkealdia

BAZTAN

UDALA → DIRULAGUNTZA DEIALDIA

Kirol jarduerak antolatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Uztailaren 15ean akituko da eskaerak aurkezteko epea

horretarako aukera. Eskaerak udal kirol bulegoan aurkeztu beharko dira: *Arizkunenea Kultur Etxea, 31700 Elizondo* edo *cultura@baztan.es*.

TTIPI-TTAPA

2011ri begira, kirol jarduerak antolatzeko dirulaguntza eskatzeko deialdia egin du Udalak, errendimendukoak edo espartzimendukoak diren kirol jardueren zuzendua, hain zuzen. Ekainaren 22an zabaldu zen eskaerak egiteko epea eta uztailaren 15era arte izanen da

ESPARTZIMENDUKO KIROL JARDUERAK

Espartzimenduko kirol programak garatu eta jarduerak egiten dituztenak eta irabazi asmorik gabeko kirola sustatzen dutenak izanen dira dirulaguntza deialdi honetan onuradunak. Baztango kirol elkarte edo kluba izan beharko du, eta parte hartze irekia



ARGAZKIA: ONDIKOL

Iruritako 100 dantzariren erakustaldia

Hiru urtetik aitzinerako 100 bat dantzari bildu ziren ekainaren 19an egin zen Iruritako Dantzari Egunean eta eskaini zuten saio ederra ikustera herritarrak ez ezik, inguruetako jendea ere bildu zen. 1994an antolatu zen lehendabiziko aldiz egun hau eta geroztik, bi urtez baino ez du hutsik egin. Bestekin batera, dantzarren urteko hitzordu nagusietako bat bilakatua da Dantzari Eguna.

duten kirolean ari dena. Horrez gain, bertzeak bertze, Kirol Federazioek antolatzen dituzten jardueretatik kanpo egoitea ere ezinbertzekoa izanen da.

ERRENDIMENDUKO KIROL JARDUERAK

Federazioek antolatzen dituzten jardueren barne ari direnek eskatu ahal izanen dute diru-

laguntza mota hau, beti ere, Baztango kirol elkarte edo kluba baldin badira.

Bi kasuetan, jarduerak guztien publikitatean Baztango Udala agertu beharko da. Eta dirulaguntza eskatzerakoan, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da: fitxa betea, informazioa (prentsa, kartelak, publikitatea, parti-

detako aktak, lizentziak eskuratzeko inprimakiak, egutegiak, emaitzak...), ebaluazioa, gastuen justifikazioa eta datu ekonomikoen inprimakia betea. Kontuan hartuko diren gastuak hauek izanen dira: txapelketetara joan-eto-riak, antolaketa lanak, materiala, instalazioak eta kirol teknikarien lanordainketak.



GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA S.L.

LEKUNBERRI
BERA | SAN JOSE
ELIZONDO | BAZTAN

LEITZA | 948 61 09 64 (SALAKO TELEFONOA)

LESAKA | 948 62 75 77 (SALAKO TELEFONOA)

BETELU | 948 51 34 67 (SALAKO TELEFONOA)

DONEZTEBE | SAN PEDRO | 948 45 19 14 (SALAKO TELEFONOA)

ELIZONDO | BAZTANDARRA | 948 58 02 50 (SALAKO TELEFONOA)

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

| TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

| LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 17AN ELIZONDON

Igande honetan zortzi egingen da Baztandarren Biltzarra besta

Orga desfilea
Elizondko
Plazan akituko
da

TTIPI-TTAPA

Gero eta hurbilago dago baztandarren besta haundia, astebete eta egun batzuk baino ez dira gelditzen. Uztailaren 17an, igandearekin, egingen da Baztandarren Biltzarra eta horren aitzakian, urtero bezala, Elizondoko karrikak jendez, musikaz eta kolorez beteko dira. Joan den urtean hartutako erabakia iri segituz, larunbatarekin gaupasarik ez antolatzea erabaki du Baztandarren Biltzarra elkarteak.

11:30ean hasiko da orga apainduen desfilea. Baina horrez gain, eguerdira bitarte eta aurten berrikuntza gisa, artisau erakusketa izanen da Axular Karrikan. 14:00etan Mutildantzak izanen dira eta ondotik, herri bazkaria egingen da Merkaturuko zelaian. Bazkalondoko jaialdiaren txanda

DATUA

11:30

abiatuko da Elizondoko karrikak zeharkatuko dituen orga apainduen desfilea.

izanen da gero: musika, Muxikoak, Larraindantzak eta Trikidantzak taldearen emanaldia. 20:00etatik aitzinera, Laiotz taldearekin dantzaldia izanen da eta ondotik, DJ-ak ariko dira. Egun osoan Baztandarren Biltzarra karpa irekia egonen da.

Mendigoizaleen atsedena

Ekainaren 19an Baztango herriz herri egingen dako itzuliaren ondotik, hilabete batzuetan atsedena hartuko dute Baztango Mendigoizaleek. Azaroaren 6an egingen dute hurrengo irteera, Arraioztik Larradura.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Joan den urteko Baztandarren Biltzarrean, erratzuarrak Lekarozko Aroztegia Jauregiko egitasmoaren aurka azaldu ziren beraien organ.

GIZARTEA → FORU POLIZIAREN ABISUA

Gas instalazioetan beharrezko ez diren azterketak egiten ari dira Baztanen

Elizondoko Foru Poliziaren komisariatik jakinarazi dutenez, azken asteetan Baztango hainbat etxetan gas instalakuntzaren errebisio susmagarriak egiten ari dira.

Legezko enpresa baten izenean aurkezten dira etxeetan eta us-tez beharrezkoak ez diren azterketak eta aldaketak egiten dituzte ins-

talazioetan. Ondotik, fakturak ordainarazten dizkiete etxeetako jabeei.

Foru poliziek gogorarazi nahi dute horrelako azterketako bortsu urtetik behin egiten direla eta enpresak azterketa egiteko abisua pasatu behar duela guttienez bortsu egun lehenagotik.

FANTXIKE
Jaime Urrutia, 15 - ELIZONDO - 948 560 312
www.fantxike.com

BASERRITAR JANTZIETAN AUKERA ZABALA

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
AUDI

MARKA GUZTIAK KONPONKETA
Banaria, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESACA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

BAZTAN

EUSKARA → EUSKALGINTZAREN OHARRA

Baztango Euskalgintzak bat egin du Udalak idazkari postuaren inguruan hartutako erabakiarekin

Udalak ekainaren 21ean utzi zuen bertan behera deialdia, euskara jakitea ez zelako eskakizun bezala jasotzen

HANKA SARTZEA

«Udal bateko idazkariak berebiziko garrantzia du haren funtzionamenduan, eta hanka-sartze ikaragarria izanzen litzateke euskara behar den bezala menperatzen ez duen pertsona bat hautatzea».

Baztango EUSKALGINTZA

tzak 18/1986-ko Foru Legean oinarrituta daudela eta Udaleko lanpostuetarako euskara ezagutzea beharrezkoa dela. «Kontuan hartu behar da, Baztango biztanleriaren %80tik goiti euskalduna dela eta gurasoen artean ia %100ak seme-alabak euskarazko ereduatan matrikulatzen dituela».

Udal bateko idazkariak berebiziko garrantzia duela azpimarratu nahi izan dute eta hala, «hanka sartze ikaragarria» izanzen litzatekeela



ARGAZKIA: ONDIKOL

Grabaketak akitu ondotik 2012an estreinatu da *Baztan* filma

Ekainaren 24an akitu ziren *Baztan* pelikularen bigarren zatiko grabaketak. Iñaki Elizalderen filma bi zatitan grabatua izan da: joan den urteko martxoan grabatu zen lehendabizikoa eta bigarrena aurtengo ekainean egin da. Bertzeak bertze, Unax Ugalde, Kandido Uranga, Carmelo Gomez eta Lurdes Agirresarobe aktore ezagunek hartu dute parte, eskualdeko hainbat pertsonekin batera. Parte hartzaileek ekainaren 25ean egin zuten taldeko bazkaria azken agur moduan. Urte bukaerarako akitua egotea espero da eta 2012 hasieran estreinatu nahi dute zinema aretoetan. Pelikulak 1.545.000 euroko aurrekontua du.

euskara behar bezala menperatzen ez duen pertsona bat hautatzea. Oharra akitzeko Euskalgintzak baztandar guztiak euskararen alde lan egitera animatu nahi ditu «erabilerak bermatuko duelako euskararen normalizazioa».

Bilduren harridura

Ekainaren 11ko inbestidura saioan NaBaik boto xuria eman zuen alkatea aukeratzeko. Horren harira, NaBaik erran zuen «zalantza handiak» dituela Bilduk aurkeztutako gobernu proposamenaren bideragarritasunaz.

Udal taldea osatze-ko Bildurengandik jasotako lehen eskaintza «osatu gabea» zela adierazi zuen NaBaik, eta hurrengo lau urtetarako

proiektuen inguruko konkrezioak eskatu zizkiola. Zentzu horretan, «gobernu programaren edukien gaineko zehaztasun falta» agerizela gaineratu zuen.

NaBaik Baztanen alde lan egin nahi duela gaineratu zuen eta ez gobernu posizioak eskuratu bertzerik gabe, bere planteamenduekin bat datozen proiektuak babesteko prest azalduz. «Zalantza» horiek tarteko, «seriotasun eta koherentzia politikoz, Udal osaketa bozkatzeko boto zuria ematea erabaki genuen».

Bilduk bertze ohar batekin erantzun dio NaBairi, edukiak eta tonuak aunitz harritu dituela argituz: «ordura arte izandako bilkuretan gure programarengandik

hurbil zegoela adierazi baitzuen».

Baztango bizilagunek Bilduren programa ongi ezagutzen dutela adierazi dute Bildutik «arrokako proposamenez gain, herritarren parte hartzea bereziki azpimarratu dugulako». Bildutik jakinarazi dute NaBaiko zinegotziari batzorde pare bat bere gain hartzeko proposamena egin ziotela eta eskaintza ardurak elkarbarnatzeko izan dela eta ez botere banaketa hutsa.

Udaletxerat sartu direla aurkitu duten egoera ere ez dela erraza azaldu du Bilduk: «udal idazkaririk gabe, egoera ekonomiko koropilatsua, hiltetgia hertsia...». Hala, kargua hartu berritan kuestinamendurik ez egiteko eskatu dio NaBairi.

TTIPI-TTAPA

Baztango Euskalgintzak ohar publikoa kale-ratu du idazkari lanposturako euskara eskakizunaren inguruan. Udalak, ekainaren 21ean, ezohiko bilkuran erabaki zuen aurreko Udalak gehiengo osoz egindako behin behineko idazkari lanposturako deialdia bertan behera uztea, euskara jakitea ez zelako eskakizun bezala jasotzen. Baztango Euskalgintzak erabaki horren inguruan egin diren adierazpenak «ezegokiak eta interpretazio okerrekoak» direla erran du eta horiek argitzea dela bere xedea.

Baztango Euskalgintzak bat egiten du Udalak hartu duen erabakiarekin, bere irudiko «uler-gaitza baita lehengo udalaren erabakia». Horrez gain, adierazi du Baztango Euskararen Ordenan-

Bierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Burriztezu sutsa · Tfnoa: 948 592 043
ORONOZ · MUGAIRI

Gure Haragia
Nuestra Carne

HISTORIA → GAZTELAK NAFARROA BEREGANATU ZUENETIK 500 URTERA

Nafarroako konkistaren urteurrena gogoan ikuskizuna prestatzen ari dira Amaiurren

Baztandarren Biltzarren egunean aurkeztuko da

TTIPI-TTAPA

2012an 500 urte beteko dira Fernando Katolikoa Gaztelako erregeak Nafarroa konkistatu zuenetik eta hori modu berezian gogoratu nahi da Amaiurren. Izan ere, gaur egun ere, Amaiur eta bere gaztelua sinbolo bezala hartuak dira herriaren memoriarentzat.

Historia berreskuratu nahian, *Amaiur 2012 haien ametsa gurea da* lelopean, Amaiurko Gaztelu Elkarteak eta herriak ikuskizun berezia prestatu nahi dute 2012ko uztailaren 20 eta

21erako. Ikuskizun artistiko-musikala izanen da, Pier Paul Berzaitzen zuzendaritzapean antolatzen ari direna, eta Amaiurko gaztelu aitziñean egingen da.

Sarrerak aitzinetik paratuko dituzte salgai. 12 eurotan egonen dira 2012ko ekainaren 30era arte eta 15 eurotan 2012ko uztailaren 1etik aitzinera.

Ikuskizuna Baztandarren Biltzara egunean aurkeztuko dute.

Akats zuzenketa

Aitzineko TTIPI-TTAPAren alean, Baztan Ikastolak urteetan irakasle izandako Sokorrori omenaldia egin zitzaioala aipatu zen. Baina Sokorroren abizena gaizki agertu zen. Sokorro lñarrea da bera.



ARGAZKIA: ZALDUA

Arizmendi eta Apeztegia nagusi Josetxo Ezkurra Memorialean

Txaruta Pilota Elkarteak antolatuta, ekainaren 26an jokatu ziren Josetxo Ezkurra Memorialeko finalak. Gazteen mailan, txapela Baztanera etorri zen, Joseba Arizmendi oronoztarrak eta Joseba Apeztegia iruritarrek 22-7 irabazi baitzioten Andoingo bikoteari. Ttikien mailako garaipena ere Baztanera etorri zen, Haritz Elizondo lekaroztarrak eta Mikel Ariztia amaiurtarrak 18-16 irabazi zuten Unax Apeztegia elizondarraren eta Beñat Etxebere amaiurtarraren kontra. Baztandar finalista gehiago ere izan ziren: Eki Larralde arizkundarra, Oier Ariztegi lekaroztarra eta Aimar Ariztegi lekaroztarra. Hauek azpitxapeldun izan ziren.

SOULE
hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berría erosi taldea

SUKALDEKO OLIOARENTZAT EDUKIONTZI BERRIA!
BAZTAN, MALERREKA eta BORTZIRIAK

- Gaikako bilketa zerbitzua zabaldu eta hobetzeko, erabilitako sukaldeko olio biltzeko edukiontzi berrak jamko ditugu kalean.
- **Kokapena:** Elizondo: Salvador eta Alduides kaleetan. Inurita: Berueta-Ziga errepidean. Arizkun: Herriko plazan. Doneztebe: Merkabuko plazan eta Aparan industrialdean. Sunbilla: Ramon Latasa plazan. Harbaste: Frontoian-trinketean. Berr: Agerra auzoan, Iturlandeta auzoan eta Ezdegara kalean (institutoa). Lezaka: Eitzeta kalean (Alprox) eta Arretxea kalea, 8. Ijantzi: Aparkalekua-bus geltokian. Arantzua: Herri sarrerako aparkalekuan. Etxalar: Herri sarrerako aparkalekuan.
- Sukaldeko olio bakarrik utzi EZ kotzekoa, ezin baltira nahastu!
- Olio ondo itxitako ontzietan utzi behar da edukiontzi barruan.
- Olio hau biodiesel bihurtuko da birziklatu ondoren.

ECOGRAS HOSTALARITZA ZERBITZUA
Informazioa: 902 366 251
www.ecogras.es

Lehen eta onenen kalitate berria! Euzko Deustuko Unibertsitatea
Herriko erroturaren garapena! Kultura berria. Euzko Deustuko Unibertsitatea

BAZTAN

GIZARTEA → URAREN KUDEAKETA ELIZONDON

la 55.000 euroko irabaziak izan zituen Iturri-Ederra elkarteak iaz

Ur depositu berria eraikitzeko asmoa du

TTIPI-TTAPA

Urte ona izan zen 2010a Elizondoko uraren kudeaketaz arduratzen den Iturri-Ederra elkartearentzat, 54.741,88 euroko superabitarekin itxi baitzuen urtea. Eta lehendik zituen 369.708,75 euroak kontuan hartuz, guztira 424.450,63 euro ditu.

Urtea hiruhilabeteka banatuz, hirugarrenean lortu zuen etekin ekonomikorik haundiena elkarteak: uztailean, abuztuaren eta irailean, 84.720,51 euro eskuratu zituen. Urte hasierako lehenbiziko hiruhilekoan 74.497,68 euro lortu zituen, bigarren hiruhilekoan 75.936,13 eta hondarrekoan 75.727,29 euro. Bertzelako dirusarrerak, bertzeak bertze, sarean egindako engantxeengatik, elkartetik kanpo egindako lanengatik eta

titular aldaketengatik lortu dira.

Iturri-Ederrak esku artean dituen proiektuetako bat 1,7 milioi litroko gaitasuna edukiko duen ur depositu berria eraikitzea da, azken hamarkadan herria haunditu dela-eta, sortu diren beharrei erantzuteko asmoz. Zaldariaga eremu-an eginen da.

Elizondoko eskolari dirulaguntza

Energiaren eragin-kortasuna hobetzeko, 35.537,44 euroko dirulaguntza eman dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Elizondoko San Francisco Jabier ikastetxeari. 54.672,99 euroko aurrekontua du-

ten lanen %65a subentzionatuko du Gobernuak eta diru hori kanpoko egurrak ordezkatzeko erabiliko da.

Uztailaren 31 rako hasita egon beharko dute laneketa azaroaren 1erako akitu. Gainera, justifikatzeko agiriak azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.



ARGAZKIA: ZALDUA

Almandozko Jaunartzea

Bestaberri besten barne, argazkian Ramon Apezetxea apezarekin batera ageri diren hiru neska-mutiko hauek Lehendabiziko Jaunartzea egin zuten. Nerea Sarraatea, Aimar Arozena eta Miren Bera izan ziren ekainaren 26an protagonistak.

FLASH

Kultur agenda

Erakusketa, ikastaro eta zinema eskaintza zabaldua izanen da uda honetan ere Baztanen.

ERAKUSKETAK

Uztailaren 17ra bitartean, Baztandarren Biltzarren kartel lehiaketara aurkeztu ziren lanak ikusgai izanen dira Arizkunenea Kultur Etxean.

IKASTAROAK

Tomas Sobrinoren eskutik eginen den helduentzako kanpoko margo ikastaroan izena emateko epea zabalik dago. Baztango paisaiak izenburupean eginen da, abuztuaren 1etik 12ra eta abuztuaren 16tik 29ra. Asteleheneetik ortziraleira izanen da, 09:30etik 12:30era. Aldi bakoitzean gehienez hamar lagunek ematen ahaliko dute izena eta prezioa 130 eurokoa izanen da.

UDAKO ZINEMA

Udako zinemaren barne, hainbat film ikusteko aukera izanen da hila-beteotan. 22:00etan izanen dira guztiak:

- Uztailaren 6an, *Toy story 3* (gaztelaniaz).
- Uztailaren 8an, *Donkey Xote*.
- Uztailaren 11n, *Harry Potter y las reliquias de la muerte* (7 urtetik goitikoentzat eta gaztelaniaz).
- Uztailaren 13an, *Rudy, txerri azkarra*.
- Uztailaren 15ean, *Arthur eta Munduen Gerra* (7 urtetik goitikoentzat).
- Abuztuaren 1ean, *Piratas del Caribe 4. En mareas misteriosas* (7 urtetik goitikoentzat eta gaztelaniaz).
- Abuztuaren 8an, *Esta abuela es mi padre* (gaztelaniaz).

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
 JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
 Espezialitatea parrillan erretako jakietan
 Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea,
 goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
 Tfnoa: 948 453 403
 31713 ARIZKUN

Egin zaitez
ttipi-ttapa
 harpidedun

(0034)948 63 54 58

AZPIEGITURAK → N-121 B ERREPIDEA

Gobernuak lur gehiago okupatu ditu Irurita-Elizondo saihesbiderako

Gaiaren inguruan herritarren kezkek biltzeko bilkura egin da Elizondon

TTIPI-TTAPA

Irurita eta Elizondo lotuko dituen saihesbidean aitzinetik aurrekusiak ez zeuden erabakiak hartu ditu Nafarroako Gobernuak Herrikan Departamentuak. Hala, Oharriz aldean lur eremu batzuk denboraldi baterako okupatzea erabaki du eskabazio lanetatik ateratzen diren materialak uzteko.

Hasiera batean, mugitutako material hori lubeten oinarri gisa erabiliz aprobeztatu zela pentsatu zen, baina badirudi ez dela erabilgarria. Horren harira, pentsatu du Nafarroako Gobernuak lurak bereganatzea. 0,36 hektareako eremua da hartu duena, baina aipatu, Landa Garapen eta Ingurumen Departamen-

tuak lehendik bereganatutakoarekin guztira bi hektarea direla.

5,8 KILOMETRO

Irurita eta Elizondoren iparraldetik barna egitekoa da bide berria, eta 5.800 metro izanen ditu. Arraiozko saihesbidearen akaberan hasiko da, hor eraikiko den biribilgunearekin. Segidan, Iruritako erreka gu-

ruzatu eta NA-4405 errepidea gainera zeharkatuko du.

2009 hondarrean esleitu zitzaion obra hau aldi baterako enpresa multzo bati, Obenasa eta Harinsa Navasfalt SA-kosatutakoari, hain zuzen. 11,1 milioi euro ingurutan eman zitzaien eta obrak akitzeko 18 hilabeteko epearekin.

BILERA ELIZONDON

Irurita eta Elizondo artean eraikitzen ari diren saihesbideak badi-rudi jakinmina eragin duela Elizondoko Baztan Berriko bizilagunen artean. Hala, Baztan Berri auzoan izanen dituen eraginaren inguruan kezkek biltzeko bilera egitekoa zuen aste honetan Elizondoko herriak.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Arizkungo bestak giro ederrean

Ekainaren 22ko txupinazoarekin hasi ziren Arizkun Sanpedroak eta lau egunez ez zen ekitaldirik falta izan. Bestak hasi eta hurrengo egunean hurrengo eguna izan zen -argazkian-, eta biharamunean Sanjuan Eguna. Larunbateko zikero jatearekin akitu ziren ospakizunak.

URDAZUBI

Irail bukaera arte zabalik egonen da Dantxarinako turismo bulegoa

TTIPI-TTAPA

Dantxarinako Turismo Bulegoak zabaldu ditu ateak dagoeneko eta hiru hilabetez horrela egonen da, irail bukaera arte. Turismo Bulegoan lanean aritzeko, Udalak eta Bertiz Partzuergo Turistikoak deialdia egin zuten interesatu guztiak izena eman zezaten. Joan den ekainaren 28an akitu zen curriculumak aurkezteko epea eta hiru interesatu aurkeztu ziren. Baldintzen artean, zonaldekoa izatea eskatu zen, baita Baztan-Bidasoaldea ezagutzea eta euskaraz, gaztelez eta frantsesez jakitea ere. Bere egiteko nagusia, bisitarien harrera egitea izanen da eta aldi berean, informazio turistiko ematea. Turismo bulegoan ohikoak diren administrazio lanak ere egin beharko ditu.

Informazio zuzena

Aitzineko TTIPI-TTAPAN, Frantziako armadak monasterioa erre zueneko objektu bat berreskuratu zela aipatu zen. Agirre-Iturria familiaren eskuzabal-tasunari esker monasterioan dago berriz ere. Baina familia hori ez da Sarakoa, Ainhoakoa baizik. Bertalalde, objektua zer den oraindik ez dago argi: kaliza edo kandela eusteko izan daiteke.

Itxiki Alzuyet margoak
Fatsadak | Bernizak | Pinturak
Pintura dekoratiboa eta industriala
Dekorazioa, estalimak, belardurak
Lakatu eta bernizatuak kabinen
Hori eta eguna arrazoiarekin
gaituzten da
pinturasalzuyet@yahoo.es

Itur-ttapi etxea
Landibar Auzoa
31711
URDAZUBI
T. 659 862 417

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarnak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Sorginen Eguna, Komunioak, Sanjuan sua eta Bestaberriko prozesioa egin dira azken aldian

Beroari aurre eginez egin dituzte ospakizunak

Margari eta Koro

Azken hamabortz egunak beroak izan dira herrian, bai tenperaturaz eta bai ospakizunei dagokienez ere. Ekainaren 18an Sorginen Eguna ospatu zen. Ekitaldiz beteriko eguna eta ospakizuna izan zen, hitzaldiak, lezera bisitak, dantza eta kanta emanaldiak, eta nola ez Akelarrearen antzezpena egin zuten.

Ekainaren 19an, berriaz, herriko haurren komunioak izan ziren. Aurten zortzi neska-mutiko izan dira Lehen Jaunartzea egin dutenak. Eta komunioen ondotik, neska-mutikoek berriaz ere jantzi dotoreak paratu eta Bestaberriko prozesioan parte hartu zuten ekainaren 26an.

Bertzalde, ekainaren 23ko ohiturei jarraituz, Sanjuan bezperako sua egin zen. Suaren inguruan dantzan ibili zen jendea eta ausartenek salto ere egin zuten.

Azken egunetan ondo aunitz ere bildu dituzte herritar batzuek.



ARGAZKIA: ZALDUA

Zortzi neska-mutikok egin dute aurten Lehenengo Jaunartzea.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Sanjuan suaren inguruan dantzan eta saltoka ospatu zen udaren ailegatzea.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Komunioa egin zuten haurrek Bestaberriko prozesioan parte hartu zuten parte, beraien jantzi dotoreak paratuta.

EGURALDIA → ESTAZIO METEOROLOGIKOAK

40 graduren muga pasatu du termometroak ekainaren 27an

Urteko egunik beroena izan da ekaineko azken astelehena

TTIPI-TTAPA

Apirileko lehenbiziko egunetan bero handia egin zuen eta termometroak 30 gradutara hurbildu ziren. Baina hori baino tenperatura altuagoak izan ziren ekainaren 27an, 40 graduren ingurukoak, hain zuzen. Aurtengo altuenak izan ziren ekaineko azken astelehenean neurtuak.

Eskualdean dauden hemeretzi estazio meteorologikoen arabera, Lesakan neurtu ziren tenperaturarik altuenak egun horretan, 41 gradutara igotzen termometroak. Donezteben ere tenperatura altuak izan ziren,

estazio meteorologiko automatikoaren arabera, 39,6 gradu eta eskuzkoaren arabera, zertxobait gutxiago, 39 gradu. Ez ziren gibelera gelditu, Amaiur, Etxalar eta Irurita, eskuzko estazio meteorologikoetan 38 gradu neurtu baitziren. Tenperatura maximoetan baxuena, Gorramendin erregistratu zen, 28,6 gradurekin.

Temperatura minimoei dagokienean, Gorramendin neurtu zen tenperaturarik freskoena, 15 gradu. Irurita, Bertiz eta Artikutzan 16, 17 eta 17,5 gradutara jeitsi ziren termometroak, hurrenez hurren.

Ondoko taulan ekainaren 27an eskualdeko estazio meteorologikoetan neurtu ziren tenperatura maximo eta minimoak ageri dira.

HERRIA	TENPERATUA MAXIMOA	TENPERATUA MINIMOA
Amaiur	38,0 C°	20,0 C°
Areso	35,0 C°	20,5 C°
Arizkun	-	-
Artikutza	33,0 C°	17,5 C°
Bera	-	-
Bertiz	32,0 C°	17,0 C°
Doneztebe (eskuzkoa)	39,0 C°	20,0 C°
Doneztebe (automatikoa)	39,6 C°	18,5 C°
Etxalar	38,0 C°	21,0 C°
Goizueta (Arranbide)	37,0 C°	19,0 C°
Goizueta	37,0 C°	23,0 C°
Gorramendi (automatikoa)	28,6 C°	15,0 C°
Irurita (eskuzkoa)	38,0 C°	16,0 C°
Irurita (automatikoa)	-	-
Leitza	33,0 C°	23,0 C°
Lesaka	41,0 C°	19,5 C°
Lesaka (San Anton)	35,5 C°	22,0 C°
Sunbilla	-	-
Zugarramurdi	-	-

VIAJES IBERIAK BADU BULEGOA BERAN!

OPORRIK HOBERENAK EROTZEKO PREZIOETAN

IRLAK 350€

TENERIFE
Agostu 11 - 18: 480 €

LANZAROTE
Agostu 11 - 18: 350 €

KARIBE 790€

PUNTA CANA
Agostu 11 - 18: 790 €

RIVIERA MAYA
Agostu 11 - 18: 840 €

JAMAICA
Agostu 11 - 18: 820 €

IRLAK

350€

8 egun

KARIBE

790€

8 egun
Ondoko Berrirte



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:
Eztegara 22, behea. 31780 BERA Navarra
 Tel. 948.631.388 . E-mail: bera.1266@viajesiberia.com

VIAJES IBERIA

SENPERE

EKONOMIA → HAINBAT ZERBITZU ESKAINIKO DITU

Merkataritzak oldar berria hartu du Ibarrunen zabaldu duten saltoki gunearekin

Merkealdiak hastapen arrakastatsua izan du

Auzotarrak pozik erosketak hurbilago egiteko aukerarekin

Franck DOLOSOR

Ereiaroaren 2a egun seinalatua izan da herriko merkataritzarentzat eta kontsumitzaileentzat. Alde batetik, merkealdia molde biziki arrakastatsuan hasi zen Karrika Nagusiaren berriki ideki den jantzi saltegian. Horko bi saltzaileek, Sylviak eta Marinak, lan handia izan zuten bezero guztiak errezebitzen eta

laguntzen goiz goizetik hamarnaka lagun hurbildu baitziren saltegitrat jantzien bilatusaian baino prezio apalagoan.

Bertzalde, egun berean zabaldu zen Ibarrungo saltegi gunea. Beren ateak ideki dituzte jadanik egunkari saltokiak, okindegi-gozotegiak eta ostatu berriak. Ondoko asteetan, Ibarrungo ileapaindegia tokiz aldatuko da eta egoitza salgune berri hortan izanen du. Baliteke banku bat ere izatea ondoko hilabeteetan.

Merkataritzak gune berriak herritar frangoren ohiturak aldatuko ditu eta ibarrundarrak, konparazione, pozik daude ez baitute gehiago maiz gainezka den karrikaraino joan behar ogiketa.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Aintzira eta karrikako beste ondotik, laster Amotzekoak

Bertze urte batez herriko bestak xarmanki iragan dira eta jende gehiena igande eguerdiko senpertarren bazkarian eta astearteko primetan, kantonamenduko abere zoingehiagokan bildu da. Egun hortan, ile xuriak ziren nagusi baina aipagarria da herriko zombait gaztek ere parte hartu zutela laborari izateko hautua egin baitute, hauen artean Mathieu Karrikaburu *Motxo* eta Kamietako bi anaiak, Emmanuel eta Ramuntxo Bereau. Adinekoek bezala, gazte hauek ere beren behi, miga, ardi eta behor ederrenak erakutsi zituzten laborarien eta natura maite duten plazerrentzat. Bertzalde, Zarena Zarelako dantza konpainiak eskaini zuen *Goazen* ikusgarriak ere ikusle multxo ederra bildu zuen eta horko dantzariak, hauen artean bortz senpeter, esku zarta zaparrada handia entzun zuten publikoak zinez gustukoa izan baitzuen agerraldi hori. Herriarrek txalo gehiago eskaini zuten jakin zutelarik agorriean San Frantziskon aurkeztuko dutela *Goazen* bidaiatzerat gomitatzen duen dantza ikusgarri original bezain erritmotsua. Aintzirako eta karrikako besten ondotik, orain Amotzekoen aldi izanen da uztailaren 13tik 17rat. Egun horietan izanen da hor animazio andana, bertzeak bertze, Maitena Monaco eta Erramun Martikorena kantarien bozak entzuteko parada besten azken egunean arratsalde. Uztailaren 14an besta nazionala ospatzen da Frantzian. Euskal Herrian gogoratzen da egun hortan euskal ikurrina agertu zutela Bilbon lehen aldikoz... eta Amotzen ahate jokoa eginen dute aurten ere egun hortan auzo hortako gazteek. Bakoitzak bere besta!

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

ttipi-ttapa
aldizkaria ebiera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:
(0034) 948 63 54 58 • www.ttipi.net

- Higo Euskal Herria 37€
- Europa 55€
- Bertain, Urdazubi eta Maierka 31€
- Amerika eta Australia 123€
- Ipar Euskal Herria 55€
- Letzia 15€

EKITALDIAK → KULTURA ETA KIROLA

Animazio parrasta izanen da hilabete osoan

Igande honetan eskulangintza eta gastronomia azoka izanen da egun guziz

Joanes GARCIA

Hilabete aberatsa izaten ari da. Hasteko, uztailearen 1ean Sarako Ondareak hitzaldi eder bat antolatu zuen Lurberri gelan. Jakintzako Paul Badiola jauna Eugénie enperadoreaz solastu zen. Napoleonen andrea Euskal Herriaz maitemindua zen eta Badiolak Azkaine eta Sara artean egin zituen egonaldiak berri eman zautkun.

Baina bertze animazio gehiago ere izanen dira uztailean: kantaldiak, kontzertuak, pilota partidak, azokak...

• Uztailearen 5ean, **eus-**

kal kantuak eskaintzekoa zen Larrun Kanta taldea elizan.

• Uztailearen 10ean, igandearrekin, egun guzian, **eskulangintza eta gastronomiaren feria** izanen da errebotean eta arratsaldean, *Entre Nive et Rhune* **ibilaldia** ren etorrera.

• Uztailearen 11n, astelehenarekin, Xisterazko **pilota partida** jokatuko da 21:00etan errebotean.

• Uztailearen 13an, asteazkenarekin, Mundo Nuevo taldeak **kontzertua** eskainiko du 21:30ean elizan.

• Uztailearen 15ean, ortziralarrekin, **kantaldia** izanen da 21:30ean errebotean.

• Uztailearen 17an, igandearrekin, **euskal dantzak** ikusgai izanen dira 21:00etan errebotean.

• Uztailearen 18an, astelehenarekin, Xiste-



ARGAZKIA: JEAN POUYET

Marie eta Raymonde omenduak

Gan den ekainaren 10ean, bi ama berezi goraiatu zituzten Herriko Etxean: Halzuetako Marie Salaberria (Errandonea sortzez) eta Leze Aldeko Hiriart-en sortu zen Raymonde Leizagoien. Batak zein bertzeak launa haur izan dituzte. Ikusle multzo eder baten aitzinean, Battitt Laborde auzapezak eta haren ekipak bi emazteak zoriondu zituzten eta merezimenduaren lepokoa eskaini.

razko **pilota partida** jokatuko da 21:00etan errebotean.

‘Eskola natura’ ekimenean 3. lekuan

Apirilean aipatu ginen, Sarako hiru eskolak biltzen dituen haurtzaindegiak *Eskola natura* ekimenean parte hartu zuela apirilaren 1etik 7ra. Frantses estatu osoan zabaldu zen lehiaketa eta *oihana* zen gai nagusia. Birziklatzen diren edozein materia erabiliz maketa bat sortu behar zen eta saratarrek loreak egin zituzten. Ekimen horren bidez irakasleek birziklapena landu zuten.

DATUA

3.

POSTUA

lortu du Bizi Garbia elkarteak *Eskola natura* ekimenean. Tartean daude Sarako neska-mutikoen lanak.

Donibane Lohizune, Ahetze eta Sarako zonaldea kudeatzen duen Bizi Garbia elkarteak Mirentxu Salberrik bultzatu eta antolatu du proiektua. Frantses estatuko 6-8 urtekoen mailan hirugarren sailkatu da Bizi Garbia. Zorionak haurrei eta laguntzaileei!

Iturria familia

Aste buru polita bezain hunkigarria iragan da berriki Zugarramurdiko ezker paretan. Koanenbordako Manuel Iturria eta Marie Larretxea haren esposaren ondorengoak bildu ziren, Iturria izena duten 150 pertsona, hain zuzen. Izan ere, Manuel eta Mariek zazpi haur ukan dituzte eta 30 haurtipi. Jendea Euskal Herri osotik etorria zen baita Espainia, Frantzia eta Ameriketatik ere.

Ondoko erronka Iruñeko artxiboetara joatea izanen dute, lana segitzeko eta ondoko bazkarietan jende gehiago elkartzeko.

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Besa (Administratiboa) 20790 BERNA Bantzarria 20712 UNGAI Bantza 20790 BERNA Lasaola 20800 LEZORRI

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

HERRIKO ETXEN
EDXENTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519
Muzen eta Vitorriq
SARA

aterpe
aterrape jatorria

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

EZKONTZAK

Asier Iantzi Aranburu eta **Leire Iru-rieta Pikabea**, Berakoak, ekainaren 4an Beran.

Asier Aranguren Errazkin eta **Garbiñe Mendiola Arrizurieta**, Lesakakoa eta Berobikoa, ekainaren 25ean Lesakan. **Iñigo Etxepare Errandonea** eta **Gema Sein Retegi**, Lesakakoa eta Igantzikoa, ekainaren 18an Igantzin.

Xabier Urreaga Etxenike eta **Aintzane Ibarra Iratzoki**, Elbetekoa eta Sunbillakoa, ekainaren 25ean Sunbillan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Aroa Pikabea Solbes, Arantzakoa, ekainaren 20an.

Oinatz Mariezkurrena Maiz, Arantzakoa, ekainaren 23an.

Xumai Jorajuria Mindegia, Donamariakoa, ekainaren 4an.

Anartz Arsuaga Tapia, Lesakakoa, ekainaren 10ean.

Xuban Almandoz Susperregi, Lesakakoa, ekainaren 18an.

Unax Gajate Aleman, Lesakakoa, ekainaren 17an.

Bittor Gartzia Grillard, Sarakoa, ekainaren 13an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Jean Errandonea, Sarakoa, ekainaren 13an, 68 urte.

Lulu Mitxelena, Sarakoa, ekainaren 20an, 85 urte.

Dolores Arburua Mendiburu, Urdazubikoa, ekainaren 15ean, 86 urte.

M^a Teresa Iantzi Iturria, Lesakakoa, ekainaren 16an, 83 urte.

Belen Barroso Perez, Leitzakoa, ekainaren 17an, 88 urte.

Bizente Mendiburu Gortari, Arraiozkoa, ekainaren 18an, 78 urte.

Genaro Alzate Ozkoidi, Berakoa, ekainaren 21ean, 63 urte.

Jose M^a Garaikoetxea Ariztia, Azpilkuetakoa, ekainaren 25ean, 79 urte.

Ramon Bikuña Amiama, Doneztebekoa, ekainaren 28an, 77 urte.

Mariano Gartzia Lukas, Lesakakoa, ekainaren 22an, 55 urte.


Maite Salvador del Rio, Lesakakoa, ekainaren 28an, 66 urte.



MIGUEL ERASUN MINDEGIA

Aurtitz, 1921-2011

*Aurtizko semea naiz
hazi eta bizi
hementxe izan baitut
behar a(d)ina girizi,
estima haundiena
nahi dut adierazi:
familia, barridi ta
adixkide guzi.*



Oskar BARRENETXE JAIMERENA

Amaiurren hil zen, 2011ko ekainaren 14an,
25 urte zituela.

*Une gogor hauetan
gurekin egon zareten guztiei,
eta min haundia ttikitzen
lagundu diguzuen horiei,
bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu.
Gure bihotzean betirako egonen zara.*

ZURE FAMILIA



Oskar BARRENETXE JAIMERENA

Amaiurren hil zen, 2011ko ekainaren 14an,
25 urte zituela, ixilpean.

*Beti laguntzeko prest,
beti borondate onez,
beti irribarrez,
umiltasunez eta bihotzez,
ixiltasunean entzunez.
Bidelagun ezin hobea izan zara
eta gurekin eramanen zaitugu betiko.*

ZURE AMAIURKO LAGUNAK

Martxel Arribillaga Indaburu, 18 urteko beratarra, duela sei urte hasi zen Freestyle kirolean eta aurten bigarren urtea egingen du profesional bezala. Espainiako txapeldun

ere izan zen joan den urtean. «Bizikletarekin saltoak egin eta airean zauden bitartean, akrobaziak egitea». Halaxe laburbiltzen du kirola, baina noski, «gero

eta akrobazia arriskatu eta konplikatuagoa egin, puntuazioaz aparte, zure gorputzeko tentsioa eta adrenalina guztia ere haunditu egiten dira».

Martxel ARRIBILLAGA | Espainiako Freestyle txapeldun beratarra

«Puntuak eta adrenalina igo egiten dira, akrobaziaren arriskuarekin bat»

A. AROTZENA | BERA

Bizikleta saltoetan airtzeko afizio handia dago Beran. Orain gutti arte futbol zelaian pista bat zegoen eta bertan ikasi zuen Martxel Arribillagak. «Baina lurrezko saltoak izanik, mantenimendu aunitz behar dute. Jende aunitz ibiltzen ginen, ez zen moldatzen eta azkenean, udaletxeak genituen salto publiko bakarrak kendu zizkigun». Joan den urte hondarretik zabalik dagoen Lulu Park skate parkeko 7 sozioetako bat da. «Niretzat garrantzitsua da saltoak lantzeko leku estali bat izatea. Neguan ezin da kanpoan aritu, beti bustirik dagoelako, eta kirol hau ezin da lohi tar-tean praktikatu».

Izan ere, kirol hau egiteko leku aunitz daude, «adibidez nere aitak bere pabeloian 36 metro koadroko espumazko piszina bat egin zuen, mendian ere saltoz beteriko pista bat daukagu, baina niri burnezko rampak eta lurrezko kaidak dira gehien gustatzen zaizkidanak». Neurri ezberdineko saltoak ere izaten dira Freestyle modalitatean, 5 metro, 9 metro, 13 metro... Kirol honetan bizikleta garrantzitsua da, «baina ez garrantzitsuenak», Arribillagaren ustez. «Kirol hau non praktikatu izatea hagit inportantea da. Guk



ARGAZKIA: JULEN PLANO PHOTOGRAPHY

Nazioarteko hainbat probetan parte hartuko du Martxel Arribillaga beratarrak.

adibidez, gure herrian ez genuenez saltorik eta ez deus, guk geuk egin genituen rampak, kaidak... eta behar diren gauza guztiak. Honetaz aparte, teknika eta indarra izatea garrantzitsua da. Nire ustez, halere, gauzarik inportateena ausardi handia izatea da, kirol honek beldur asko ematen du eta».

Joan den urtean, Movistar Barcelona Extreme konpetizioa egin zen, Espainiako txapelketa ez ofiziala eta beratarrek profesional kategorian

AUSARDIA

«Bizikleta garrantzitsua da, baina ez garrantzitsuenak. Non praktikatu izatea hagit inportantea da. Honetaz aparte, teknika eta indarra izatea ere garrantzitsua da. Nire ustez, halere, gauzarik inportanteena ausardi handia izatea da, kirol honek beldur asko ematen du eta».

parte hartu zuen, estatuko gidari onenekin batera. Azkenean, «entrenamendu aunitz eta gero, txapelketa hau irabaztea lortu nuen». Estatu mailan ez ezik nazioarteko zirkuituetan ere parte hartzen du. «Orain Mallorcara noa, bertako zezen-plaza batean moto eta bizikleten artean exhibizio bat egitera. Bertatik Alpetara joango naiz FISE izeneko nazioarteko konpetizioan parte hartzera, munduko gidari onenen artean. Uda bukaeran Alemaniara ere

joango naiz bertze nazioarteko konpetizio batera. Hroiek dire oraingo joango naizenak, baina seguru nago uda honetan holako proba gehiago aterako direla» dio itxaropentsu.

Telebistan, motoek egiten dituzten saltoak gehiago agertzen dira eta, irri artean, aitortzen du noizbait probatzea gustatuko litzaiokeela: «Motorrak betidanik gustatu izandu zaizkit eta espero dut nozbait kirol hori zer den jakitea. Oraingoz dirua aurrezten joanen naiz nozbait motorra erosteko».

Kanpotik begiratuta, kirol hauek estetika berezi batekin, musika jakin batekin, azken finean, bizi-estilo batekin lotzen dira, baina Berako kirolariaren ustez, «bakoitzak gure bizi-estiloa daukagu, gure musika, gure janzkera... baina denboraldiko bizi-eritimoa oso altua da. Bidai aunitz, tentsio handia, obligazioak, hori lesioak kontuan hartu gabe». Onenen artean destaketa oso zaila da eta bera dagoen tokian egotea ere ez omen da batere erraza izan. Horregatik, «nigan hasieratik konfidantza izan duten jendeari eskerrak eman nahi dizkiet. Scott bizikletak, Ado anaiak eta nire gurasoei lehendabiziko bizikleta erosteagatik...».

KAMIOIA → GARAIPEN HISTORIKOA

Europako txapelketako karrera lehen aldiz irabazi du Mariezkurrenak

Frantziako Nogaron lortu du garaipena doneztebarrak

TIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Krisia kamioi lasterketara ere ailegatu da. Horren ondorioz, Javier Mariezkurrena doneztebarrak gidari duen Truck Navarra taldea lasterketan guttiagotan parte hartzen ari da aurten. Baina ekainaren 18ko asteburuan Nogaron (Frantzia)

taldearendako bigarren karrerazenean, garaipen historikoa lortu zuten Europako txapelketarako baliagarria zen proba lehen aldiz irabazita. Ez hori bakarrik: estatu mailako talde pribatu batek garaipena lortzen duen lehen aldia da eta estatuko kamioi gidarien artean ere, Europako txapelketako karrera bat irabazten duen bigarrena da Mariezkurrena.

Lehenbiziko lasterketarako, lortzen arras zaila dagoen superpolean



ARGAZKIA: PATXI APEZETXEA
Mariezkurrena Nogaroko podiumean pozik, Europako txapelketan lehen garaipena lortuta.

sartzea lortu zuen. 10. denborarik onena egin zuen eta parrillan postu horretan ateraz zen lehen karreraren. 2003an Europako txapeldun izan en Stuart Olivier gidariarekin lehiatu ondotik, 10. akitu zuen lehen lasterketan. Bigarrenean ere 10. abiatu zen eta baina ez zuen lortu aitzineratzea eta postu berean sailkatu zen.

Igandeko sailkatze txandan berriz ere super-

polean sartzea lortu zuen, 9. denborarik onenarekin. Postu horretan abiatu eta karrera ederen ondotik, 8. akitu zuen. Hala, laugarren karreraren lehen postuan ateratzeko aukera izan zuen.

Asteburuko azken karreraren, lehen postuan abiatu eta irteera bikain baten ondotik, lehenbiziko bihurtunean lasterketan buruan sartzea lortu zuen, helmugara lehen

postuan sartuz. Garaipen historikoa izan zen, «honekin amesten genuen, baina ez genuen uste inoiz ailegatuko zenik, arras polita eta handia da», aipatu digute Truck Navarra taldetik.

Europako txapelketak bost proba eginak ditu dagoeneko, baina Mariezkurrenak bitan hartu du parte. Halere, Europako kamioi lasterketan txapelketan hamabigarren postuan kokatu da.

PILOTA → TXARUTA PILOTA ELKARTEAK ANTOLATUA

234 pilotarik parte hartu dute Josetxo Ezkurra Memorialean

Txapelketaren XXI. edizioa izan da

TIPI-TTAPA

Ekainaren 26an jokatu ziren Josetxo Ezkurra XXI. memorialaren finaleko partidak Donezteben, Txaruta Pilota Eskolak antolatuta. Guztira 234 pilotarik parte hartu dute eta horietako batzuzekin, 9 final jokatu ziren. **Ttikietan**, Haritz Elizondo (Lekaroz) eta Mikel Ariztiak (Amaiur) 18-16 irabazi zieten Unax Apeztegia (Elizondo) eta Beñat Etxebereri (Amaiur).

Umeen B mailan, Eñaut eta Manex Apeze-

txea (Goizueta) nagusitu ziren, 18-6 Mikel Goñi eta Axier Ballarenari (Elizondo) irabaziz. A mailan, Eki Larralde (Arizkun) eta Oier Ariztegi (Lekaroz) 14-18 galdu zuten Mujika eta Aranbururen aurka (Andoain).

Kimuen B mailan, Oskoz (Arraiz) eta Cuai-

ranek (Cortes) 18-17 irabazi zieten Aimar Ariztegi (Lekaroz) eta David Barenetxeri (Irulegi). A mailan, Zubizarreta (Ataun) eta Salaberriak (Goizueta) 18-4 irabazi zieten Aitor Aizkorbe eta Antton Apeztegia goizuetarrei.

Haurren B mailan, Oihan Canabal (Igantzi)

eta Julen Palenzuelak (Lesaka) 18-4 irabazi zieten Andoingo Usandizaga eta Oiarbideri. A mailan, Barriola (Zizur) eta Martijak (Ihurtzun) 9-18 galdu zuten Ander Errandonea eta Iñigo Martinezekin (Bera).

Kadeteetan, Jon Olaizola (Lesaka) eta Xa-

bi Mendyk (Bera) 18-14 irabazi zuten, David Albiasu (Narbarte) eta Mikel Beginoren (Igantzi) aurka.

Gazteetan, Joseba Arizmendi (Ornoz) eta Joseba Apeztegiak (Iurita) 22-7 irabazi zieten Ariztimuño eta Jauregiri (Andoain).



ARGAZKIA: ZALDUA
Josetxo Ezkurra Memorialeko finalistak.

TXIRRINDULARITZA → XX. EDIZIOA

2.030 txirrindularik parte hartu zuten La Miguel Indurain proban

Xabi Aranguren igantziarra gailendu da ibilbide luzean

guel Indurain berak, Marisa Lopez de Goikoetxea bere emazteak eta Miguel Indurain semeak. Bertze 751ek 186 kilometroko ibilbide luzea aukeratu zuten.

Antolatzaileek Bernard Hinault eta Eddy Merckx ere gonbidatuak zituzten, Atarrabiakoak bezala Frantziako 5 Tourren irabazleak direlako, baina ez ziren Berara azaldu. Baina bi txapel-dun handiak ez etorriagatik, alde guzietako txirrindulariak ageri ziren: Frantzia, Espainia, Herrialde Katalanak, Italia...

TTIPI-TTAPA | BERA

Club Ciclista Beratarra elkarteak XX. urtez antolatutako La Miguel Indurain txirrindularitza probak partehartzaile marka gainditu zuen ekainaren 25ean. Denera, 2.030 txirrindulari abiatu ziren Beratik. Horietatik 1.279k 113 kilometroko ibilbide laburra osatu zuten, tartean, Mi-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Jon Bru ere irteerako zinta moztzen aritu zen.

IBILBIDE LUZEA

Proba luzean Xabi Aranguren igantziarranagusitu zen (05:15:32). So-puertako Rafael Perez San Jose eta Iruñeko Eñaut Otxoak osatu zuten podiuma. Aipagarria da Luciano Mitxelena le-sakarraren lana: 55-64 urtekoetan erraz irabaz-teaz gain, 19. izan zen sailkapen orokorrean.

Emakumezkoetan, hiru bakarrik ausartu ziren ibilbide luzea osatzera.

Horien artean, Basauri-ko Virginia Lotina nagusitu zen (06:52:07). Paula Gonzalez bilbotarra minutu eta erdi beranduago helmugaratu zen eta Zumarragako Nekane Lasa 20 minutura.

IBILBIDE LABURRA

Probalaburrean, Gernikako Antonio Alcañiz-ek iaz galdu zuen 2008-tik zeukan marka, baina aurten marka berria ezarri du (02:54:26). Sprin-

tean, Ikaztegieta Anjel-mari Acedo eta Iruñeko Jochen Krügermeyerri nagusitu zitzaion. Joan den urtera arte ez zuen inork hiru ordu azpitik egin ibilbide laburra, baina aurten 45 lehenbizikoek lortu dute.

Emakumeetan, Ana Monreal iruñearra izan zengaraile (03:21:50) eta kasik 9 minutuko alde atera zien Idoia Mujika eta Ainara Pacheco gipuzkoarrei.

HERRI KIROLAK → UZTAILAREN 8TIK 14RA IRUÑEAN

Ortziral honetan hasiko dira sanferminetako herri kirol txapelketak

Hainbat erakustaldi ere egingen dira

- Nafarroako lasto altxatze txapelketa.
- Joxe Bikondoaren erakustaldia.

UZTAILAK 9, LARUNBATA

- Nafarroako 1. mailako arpana txapelketa.
- Nafarroako kadete mailako arpana txapelketa.
- Lasto altxatze erakustaldia.
- Lasto botatze erakustaldia.
- Sokatira erakustaldia.

UZTAILAK 10, IGANDEA

- Nafarroako bikotekako aizkolaria txapelketa.

- Nafarroako gurdi altxatze txapelketa.
- Arpana erakustaldia.
- Harrijasotze erakustaldia.

UZTAILAK 11, ASTELEHENA

- Nafarroako emakumezkoen txinga eramate txapelketa.
- XIII. San Fermin Motozerra Saria.
- Kañamares anaien erakustaldia.
- Emakume aizkolarien erakustaldia.

UZTAILAK 12, ASTEARTEA

- Nafarroako gizonezko-



Karlos Sein igantziarra ingudearekin joan den urteko sanferminetan.

en txinga eramate txapelketa.

- Aizkolaria gazteen erakustaldia.
- Proba konbinatuaren erakustaldia (Kimuak).
- Haurrendako herri kirolak.

UZTAILAK 13, ASTEAZKENA

- Aizkolaria erakustaldia.
- Motozerralarien era-

kustaldia

- Harrijasotze erakustaldia (Perurenatarrak).

UZTAILAK 14, ORTZEGUNA

- Nafarroako 3. mailako Aizkolaria Txapelketako kanporaketa.
- Nafarroako ingude altxatze txapelketa.
- Harrijasotze erakustaldia (Saralegi).

UZTAILAK 8, ORTZIRALA

- Nafarroako harri-jasotze txapelketa.

uztailak 07-20

Informazioa bidaltzeko: info@titi.net edo 948 63 54 58**Bestak**

LESAKA | 2011.07.07

San Fermin egunean Zubigainekoa

Egitarau zabala dute aurten ere bestetan, baina ekitaldirik bereziena, San Fermin eguerdian ezpatadantzariak dantzatzuko duten Zubigainekoa.

Ikastaroak

ELIZONDO | 2011.08

Helduentzako pintura ikastaroak Tomas Sobrinorekin

Batzango paisaiak izeneko margo ikastaroa emanen du abuztu-ko bi txandatan Tomas Sobrinok. Izena eman daiteke dagoneko Arizkunenean.

Kontzertuak

DONAMARIA | 2011.07.15

Jazz musika doinuak aditzeko aukera Jauregian

Cultur 2011 egitarauaren barranean, Calle fácil jazz taldeak emanaldia eskainiko du Jauregian, 19:30etik aitzinera. Musika aditzeko toki ederra!

Bestak

AZPILKUETA

San Fermin bestak

Uztailaren 6tik 9ra. Xehetasunak 545. alean.

LESAKA

San Fermin bestak

Uztailaren 2tik 10era. Xehetasunak 545. alean.

ITUREN

Herriko bestak

Uztailaren 15etik 18ra. Xehetasunak 12. orrian.

ARANO

Santiago bestak

Uztailaren 22tik 25era. Xehetasunak 37. orrian.

ELGORRIAGA

Santiago bestak

Uztailaren 22tik 25era. Xehetasunak 32. orrian.

ELIZONDO

Santiago bestak

Uztailaren 22tik 25era. Xehetasunak 15. orrian.

Ospakizunak

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra

Uztailaren 17an ospatuko da. Xehetasunak 41. orrian.

Ikastaroak

BERA

Hip hop ikastaroa ikastolaren eskutik

Uztailaren 18tik uztailaren 22ra antolatu du Labiaga ikastolak, Berako udalaren laguntzarekin, LH6 eta DBHko ikasleei zuzendua. Kultur Etxean emanen da 11:00etatik 12:30era.

Erakusketak

ELIZONDO

Margo eta poesia erakusketa

Ekainaren 22tik uztailaren 17ra Diana Iniesta eta losu Morachoren *Ixiltasunaren ehundurak* margo eta poesia erakusketa izanen da Arizkunenean.

Pintura erakusketa

Uztailaren 1etik abuztuaren 27 artio Martina Dasnoy-ren pintura erakusketa Arizkunenean. Arte eta Kultura egitarauaren barranean.

Baztandarren Biltzarrako kartel erakusketa

Uztailaren 1etik 17ra lehiaketara aurkeztutako kartelen erakusketa Arizkunenean. Baztandarren Biltzarra elkarteak antolatua.

ARIZKUN

Margo erakusketa Santxotena parkean

Uztailaren 2tik abuztuaren 31ra Teresa Lafraguaren margo erakusketa Santxotena Parke-Museoan.

BERTIZ

Margo erakusketa

Uztailaren 15etik abuztuaren 28ra Javier Sueskunen pintura erakusketa Bertizko Jaurreriko jauregian. 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era. Cultur 2011 egitarauaren barranean.

Lehiaketak

BAZTAN-BIDASOA Boluntarioritza eta elkartasunaz bideoak Azaroaren 11 arte

akituko da Bidelagun elkarteak *Bertzeen larri jarri* izenburupean antolatutako bideo lehiaketan lanak aurkezteko epea. 14-18 urte arteko gazteei zuzendua.

Feriak

SARA

Eskulangintza eta Gastronomía Feria

Uztailaren 10ean egun guzian feria izanen da errebotean. Arratsaldean, *Entre Nive et Rhune* ibilaldia.

Kontzertuak

DONAMARIA

Jazz musika Jauregian

Uztailaren 15ean Calle fácil taldeak jazz musika emanaldia eskainiko du Jauregian 19:30etik aitzinera. Cultur 2011 egitarauaren barranean.

SARA

Mundo Nuevo elizan

Uztailaren 13an Mundo Nuevo taldearen kontzertua 21:30ean elizan.

PROPOSAMENA

ELIZONDO

Eskurak batzen gaitu Baztandarren Biltzarrean

Baztandarrek ez ezik, inguruko eta Euskal Herriko xoko guzietatik jendea bilduko da uztailaren 17an Elizondon, Baztandarren Biltzarren kariatara. Herriko istorioak edo eskakizunak agertuko dituzten orga apainduak, dantzariak, herri bazkaria... Bazkalondoan jaialdia izanen da eta gauez dantzaldia eta DJak ariko dira.



Izen ematea uztailaren 12ra arte, 012an.

ELIZONDO

'Batzango paisaiak' helduentzako pintura ikastaroak

Abuztuaren 1etik 12ra eta abuztuaren 16tik 29ra emanen ditu Tomas Sobrinok, astelehenetik ortzirralera, 09:30etik 12:30era. Prezioa: 130 euro. 10 lagunendako tokia bakoitzean. Izen emateko epea zabalik Arizkunenean.

Tailerrak

ELIZONDO

Pintura eta grabatu tailerra haurrentzat

Ekainaren 27tik uztailaren 8ra Javier Ciga pintura eta grabatu tailerra egingen da 5-9 urte arteko haurrentzat Arizkunenean. Astelehenetik ortzirralera, 10:30etik 12:30era. Eneko Perez eta Sonia Ilzarbe izanen dira irakasle.

Zinema

ELIZONDO

Udako zinema zikloa

Uztailaren 8an *Donkey Xote* filma ikusgai euskaraz.

Uztailaren 11n *Harry Potter y las reliquias de la muerte* filma ikusgai. 7 urtetik goitikoendako.


Uztailaren 13an *Rudy, txerri azkarra* filma ikusgai euskaraz.

Uztailaren 15ean *Arthur eta munduen gerra* filma ikusgai euskaraz. 7 urtetik goitikoendako. Emanaldi guztiak 22:00etan Merkaturako Plazan, Arte eta Kultura egitarauaren barrenean.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Mea Culpa

UXUE APAOLAZA

Elkar, 2011

Bakandurik bizi den Lur bizitzan aldaketa bat behar duela jabetuko da. Mikelen argazki bat ikustean, iraganetik etorrira bezala, gogora ekarriko dizkio ahantziak nahi lituzkeen oroitzapenak, nerabezaroko mamuak, konpondu gabeko ideologi auziak... Madril utzi eta gurasoek Landetan duten oporretako etxera joatea erabakiko du, beka baten laguntzaz idatzi behar duen eleberria amaitzera, bidaia ikaskide ohi batekin egin behar badu ere. Bere autogorrotok eta gorroto sozialak berpiztuta, Facebook-eko nortasun faltsu batekin orduko adiskideekin zitak egin eta banan-bana hiltzea pentsatuko du. Bere probokazioan ausarta da nobela, gure gizarteko hainbat zauritan hazka egiten duena, gogoetekin irakurleari ezinegon sortu eta hausnarketa propioa eragiteko balio duena.

Musika



Kalte

KALTE

Baga Biga, 2011

Kalte 2000. urtean sortu zen taldea da, bi urte pasa ondotik *Tortura* izeneko maketa kaleratu zuten. Metal sendoa eta indartsua, ahots garbiekin uztartzen ditu. Oinarri lodia du, baina melodiari beti garrantzia ematen diote. 2008. urtean *Larrosik gabeko bidea* diska kaleratu zuten, riff indartsuen jarraipena eta melodiari leku gehiago eginez. *Kalte* diskoa bigarren lana dute. Eboluzioan pausu haundi bat emanaz, bai musikan eta baita ahotsean ere. Kantu oso zuzenak dira, elektronikoa eta haizezko instrumentuak sartu baitituzte. Musika gogorra egin arren, balada melodikoak ere sartu dituzte bertan. Nabaria da talde honek zortzi urteren buruan izan duen eboluzioa, baina eurek dioten bezala sustraiak ongi erroturik dituzte, hasierako musikaren esentzia mantentzen dutelarik.

Internet




Bertsolaritzaren Datu Basea

BDB.BERTSOZALE.COM

Urte askotako lanaren ondoren Bertsozale Elkartek ekainean aurkeztu zuen Bertsolaritzaren datu basea. Egitasmo honen helburu nagusia Xenpelar Dokumentazio Zentroak bere edukiak internet bidez gizarteratzea eta maila guztietako ikerkuntza bultzatzea da. Berrikuntza teknologiko zabal baten hasiera bertzerik ez da hau, eta etorkizunean zentroan dauden atal guztietako dokumentazioaren berri eman eta dokumentu digitalen publikazio zabal bat eskaini nahi dute. Euskal herri osoan zehar bertsolaritzaren inguruan egindako gizarteratze-tresna izatea dute helburu. Bat bateko bertsoen mp3 fitxategiak, Haitzondo egitasmoaren ageri diren pertsonen argazkiak, bertsolaritzako doinutegia... biltzen ditu bertzeak bertze datu base berri honek. Bertsozale guztientzat sarean eskuragarri.

Nire aukera



Xabi IRISARRI
Elgorriagako gaztea

«Mexikotik Argentinara furgonetaz jaustea da nire ametsa»

Aurrerakada enpre-san altuerako lane-tan aritzen da Irisarri eta denbora librean ere, «laguneki mendian edo eskalada egiten pasatzea gustatzen zait eta barririk banago, zaldian ibili». Astebururako planik politena berriz, «neskalagunarekin eta semearekin nonbaitera ateratzea da, Landetara edo Euskal Herrian bertan, tartetxo bat dugunean saiatzen gara eskapatzen» dio. «Parranda ere gustatzen zait», onartu du. Gazte-gaztetan hasita aunitz bidaiatu du Elgorriagakoak, «18 urte nituene-tik harat-honat ibili naiz, semea izan arte beti bidaiatzen ibili naiz». Bidaia horien artean, «Nikaragua eta Patagonia aunitz gustatu zaizkit». Aitzinera begira, bere ametsetakoa bidaia, «neska eta semearekin Mexikotik Argentinara furgoneta batean jaustea izanen litzateke, abentura!». Bidaiatzeaz gain musika ere gustatzen zaio, «musika berria ezagutzea». Talde aunitz ditu gogoko, «lasai-lasaietatik hasi eta gogorrenetaraino».

ETXEBIZITZAK
salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ARRAIOZ. 90 m²ko pisua salgai. 33 m²ko sabaiarekin eta 25 m²ko lorategiarekin. Sukaldea altzariekin. Egongela 35 m², 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua eta ongi zaindua. ☎696 129234.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

ARIZKUN. 70 m²ko pisua salgai, 30 m²ko sabaiarekin. 2 logela. ☎619 474935.

LESAKA. Etxebizitza salgai, prezio onean. ☎609 477277.

**ETXEBIZITZAK**
errentan emateko

IRURITA. Etxe bat errentan emateko. 3 logela. ☎659 764375.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. Azkaine karrikan 24 m²ko lokala sal-

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

gai. Orain arte garaje moduan erabilia. ☎667 796439.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

BERA. Burga karrikan, Telefonica ondoan, garaje itxia errentan emateko edo saltzeko. ☎664 266131.

LESAKA. Plaza Berria karrikan bulegoa errentan emateko. Lanerako prest. Zuk zenbat ordain deza-kezu? ☎948 630287.



DONEZTEBE. Aparan inguruan 75 m²ko pabiloia errentan emateko. Argia eta urarekin. ☎659 613240.

GARAJEAK/LOKALAK
traspasatzeko

LEITZA. Gaztañaga taberna traspasatzeko. Modu onean. ☎699 361194.

LANA**eskaintzak**

BERA. Ibardinen neska bat behar da lanean aritzeko. ☎948 630734.

BERA. Emakumea behar da ostatu batean sukaldari laguntzaile aritzeko. ☎948 630259.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatetxean sukaldari fregaderan aritzeko

langilea behar da, uztailan eta abuztuan. ☎948 599146.

BERA. Jatetxe batean uztailan eta abuztuan zerbitzari lanetan aritzeko neska edo mutila behar da. ☎948 630392.

LANA**eskariak**

Emakume batek adinekoak zainduko lituzke edozein tokitan eta interna moduan. ☎678 397046.

BERA. Neska gazte euskaldunak udan haurrak zainduko lituzke. ☎948 631182.

Neska gazte euskaldun bat edozein lanetan ariko lituzateke uztailan eta abuztuan: haurrak zaintzen, ostalaritzan... ☎617 085766.

Gizonezko bat edozein lanetan ariko lituzateke. ☎618 628276.

Gizonezko bat edozein lanetan aritzeko prest dago. Esperientziaduna. ☎610 956130.

Neska gazte euskaldun bat edozein lanetan ariko lituzateke: etxeak garbitzen, adinekoak eta umeak zaintzen... ☎695 716894.

Arratsaldean eta asteburuetan **emakume batek** lan eginen luke etxeko lanetan edo adinekoak zaintzen. ☎639 080811.

ZERBITZUAK
denetarik

ROSA BELZUMBI
PSIKOANALISTA
Kontsultazio eskatu oratu
☎ 948 272011 (RUAA)
☎ 948 580975
Jama Urutia 42-2.D - ELIZONDU

BORDA
ISOLAMENDUAK
Termikokoak | Akustikokoak
Suairen kontrakoak
Pladur lanak • Eraberritzeak
Erekitzeak • Industriadunak
Dekorazioak • Sobel modularrak
Tlf: 948 637 548 • M. 609 477 277
2000 • Berriztatzeak • Lurrazkoak

ARANTZA
Zurgindegia.....
• Klase guzietako zurgin lanak
• Eskatu sarrekontuak konpromisarik gabe
Jose Royal Errealdea
Tel: 948 634 868 - 647 810 144
Gertutze • ARANTZA

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(ekainaren 17tik 24ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 28,00 € (+2,00)

Zerri gizena
1,270 € kiloa. (=)

Zerramak:
0,420€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,13 (=)

1.koa 3,74 (=)

2.koa 3,50 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,12 (=)

1.koa 3,84 (=)

2.koa 3,70 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 110,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,85/2,95

Zaldi-behorrak: 1,75/1,95

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,20/6,90

8-10 kilokoak: 5,30/5,60

MOTORRAK
tailerrak



MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

MOTORRA
salerosketak

Yamaha Banshe quada salgai. 2002koa. Egoera hagitz onean. 2.700 euro. ☎655 709553.

Kawasaki vulcan 900 classic motorra salgai.

18.000 kilometro. Gara-jean egondua eta berri-berria. Prezioa: 5.500 euro. ☎948 630392.



Yamaha YZF R6 moto-rra salgai, 7000 K. 2007koa. Beti garaje-ean egondakoa. Bi kasko ere bai, Arai eta Shoie, azken hau estreinatuta gabea. Laruzko jaka zuri-beltza ere salgai. 5.300 euro negozi-ziagarriak. ☎687 562559.



Toyota Land Cruiser 3 atekoa salgai. 2005. urtekoa, 155.000 kilometro-ekin. Extra guztiak dauzka, hagitz elegantea. ☎670 303520.



ANIMALIAK
oparitzeko

Zakurkume beltza oparitzeko. Ama nahasketa. ☎620 401461.


Katuak oparitzeko. ☎948 580231.

ETXALAR. Artzain zakurkumeak oparitzeko. ☎636 531792.

Zakurkumeak oparitzeko. Pastor aleman nahasketa. ☎635 744732.

ANIMALIAK
salgai

Hispano-arabe con media carta 2002ko **behorrra** salgai. Jatorri arabiar-polakoa (MAKHSAM). Etxean jaio eta hezitakoa. Jarrera oso onekoa eta behargile gogotsua. Ez du inolako arazorik. Per-ratua. Bakunatua eta desparasitua. Prezio in-teresgarria. ☎679 236689.



AUZA (Ultzama): Behorrrak eta moxalak salgai. PRE. Neurri ona eta mugimendu ederrak. Adin eta prezio desberdinetakoak. Gaeuz deitu. ☎948 305149.

DENETARIK
galdu/aurkituak

BERA. Toki Ona institutuaren inguruan betaurreko graduatuak galdu dira, funda beltz baten barrenean daude. Sarituko da. ☎650 386523/948 625000.

DENETARIK
salerosketak

IRUN. Taxi lizentzia salgai. ☎619 345729.

STIHL motozerra salgai, 070 modelo 300 eurotan. ☎620 076102 (Jose Luis).



Belar idor bolak salgai. ☎660 393436.

egin zure erosketa

hemen
agertu
nahi
duzu?

www.ttipi.net en
IRA- 2 aldizkaritan
GAR- interneten
KIA telebistan

8
EURO

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez




Berako **UNAI IPARRAGIRRE** IRIARTEK 13 urte bete ditu ekainaren 20an. Zorionak eta muxu handi bat Berako familiaren partetik.



Elko, Nevadako **MITCHELL OWLSLEY** IGOAK 13 urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Sunbillako **ENERITZ ITURRALDE EZKURRA** gure moxorkiloak 2 urte beteko ditu uztailaren 10ean. Zorionak atta, ama, atautxi, amatxi, izeba-osaba eta lehengusu guztien partetik. Muxu handi bat eta ongi pasa eguna!



Sunbillako **MAREN IRIOGIENEK** urtea beteko du uztailaren 20an. Zorionak aita, ama, atautxi, amatxi eta berexiki Egoiren partetik. Zorionak moñoña.



Zugarramurdiko **BEGOÑA OLHAGARAY ALEMANEK** uztailaren 22an urteak beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



Zubietako **ARITZ ARAGON GARROTEK** 6 urte beteko ditu uztailaren 10ean. Berendu goxoa prestatu! Muxu handi bat aita, ama, amama eta berexiki Urkiren partetik. Zorionak kukuxu!



Langile berriak ditugu Zubitan! **MALEN, URKI** eta **ARITZ**ek urte lanpetua pasatu dute, proiektu, etxe berriketan... Noiz eginen duzue etxe polit bat igerileku handi batekin? Zorionak familia guztiaren partetik.



MARKEL TORRES ALEMAN gure zakozahar tikiak 4 urte bete ditu ekainaren 25ean. Lau muxu haundi amato, aitxo eta Unairen partetik.



Iruñeko **KEMEN ETXEBERRÍA GARRAUSEK** uztailaren 23an 6 urte beteko ditu. Zorionak tximissssssssst... Harrapatu sei muxu haundi, haundi-haundiak aitatxi eta amatxiren partetik.



Iruñeko **KEMEN ETXEBERRÍA GARRAUSEK** 6 urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak anitz gure sorgintxo! Besarkada haundi eta muxu bero bat Arzallus eta Toñiren partetik.



Berako **ALAZNE PEREIRA CORTIZOK** 2 urte beteko ditu uztailaren 6an. Zorionak printzesa aita, ama eta familia osoaren partetik.



Arantzako **IRATI AZPIROZ ERRANDONEAK** uztailaren 7an beteko ditu 6 urte. Zorionak eta muxu asko zure anaia Beñat, aita, ama, zure lehengusu Mattin, Ander eta familia guztiaren partetik. Ongi pasa printzesita!



AUZA IPARRAGIRRE ITURZAETA elizondarrak urteak beteko ditu uztailaren 31n. Aunitz urtez etxeko guztien partetik. Muxu potolopotolo. Prestatu merendu goxoa, e!



Leitzako **NAROA** eta **UXUE MARIEZKURRENA ALDUNTZINEK** urteak beteko dituzte uztailaren 4an eta 13an. Zorionak eta muxu haundi bana! Prestatu atsaldeko goxoa!



Zorionak izeba **SAIOA!** Prestatu txanpain botila San Pedroetan irekitzeko. Muxu haundi bat. Ibai.



Iruñeko **UXUE BIKONDO** eta **MIKEL ARRAZTOAK** 4 eta 7 urte bete dituzte ekainaren 29an eta 16an. Zorionak eta aunitz urtez familia osoaren partetik. Muxu handi bat Aritz, Xabi eta Josuren partetik.

mundu guziak ikusteko!
kontzertuak, herriko bestak, txapelketak, komertzioak

100 KARTEL A3 KOLORETAN 93 €

250 KARTEL A3 KOLORETAN 114 €

ZURE HERRIKO bestak 200
uztailaren 20k 6ra

ttipi-ttapa
948 63 54 58
kulturan@ttipi.net

Šuteia-Zaldaiu



instalazioak

IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK

ONGI PASA BESTAKI!

Santiago, 71
31700 ELIZONDO | NAFARROA
T. 948 580 166 | F. 948 452 557
M. 619 424 999 | 649 699 820

POTTOKI

de la 1982

HAURRENDAKO
BEHAR DUZUN
GUZTIA

OPARIAK • SEHASKAK
KOXTERAKO AJULKIAK
LEHENAGOKO JOSTAILUAK
EDREDOI ETA KOSKOR-BABESAK
KOTXEENDAKO ZAKLUAK
HAUR-AJULKI ALTUAK
SILLETAK
JAIOTZE ZERRENDAK

Baztanberri Plaza, 3 - behea | ELIZONDO | T. 948 581 983
info@pottoki.com | www.pottoki.com

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

545. ALEKO IRABAZLEAK

* TTARTTALO 2 LIBURU

Begira | Estitxu Arretxe Iridoi | Hondarribia
Hatzekin jolasteko liburua | Rake! Goñi Lakar | Elbete

* URTXINTXA ESKOLA PUNPALAPLAN CD + DVD

Itziar Elizaintzin Oharriz | Gartzain

* ONINART KAMISETA

M^a Luisa Mihura Sanzberro | Elizondo

* MARTIKO LOTEA

Jose Ramon Retegi Iturbide | Igantzi

* TTIPI SASKIA

Amparo Lournaga Izeta | Oiergi

ttipi txartela

ttipi-txape

Aizara Míndegia
46326741-Z
aburto: 2012/03
Zk. 21519

DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan



elkar

2 LIBURU

Elkar argitaletxea
www.elkar.com



AQUARIUM

AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com



Lanku

IPARRALDEKO BERTSULARI TXAPELKETA DVD
Lanku argitaletxea
www.lanku.com



PUPU ETA LORE CDa
Pirri, Porrotx eta Marimotots
www.katxiporreta.com



onddo
ta. punto.

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



ibaizabal

2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com

DESKONTUAK

jaione tindategia

%10, 12€tik gorako gastuan



FOTO MENA

%10 deskontua kopila digitaletan

kimetz

Balarandona
%10 kosmetikan

Ostargi optika

%10,30€tik gorako gastuan

KATTALINGORRI

%10eko deskontua